

ttipi ttapa

2002ko urtarrilaren 24 • XXII. urtea



Gure Irratiak 20 urte bete ditu

03

Egoitza nagusia Baionan duen Irratiak 20 urte bete ditu. Bi estudio berri ireki dituzte Hazparne eta Hendaian. Orain, Sara eta Azkainen ere hobeki aditzen da.



Urdazubi-Baztan Santiago Bidea

04

50 pertsona biltzen ditu Urdazubi-Baztango Santiago Bideko Lagunak elkarteak. Bide hori zaindu eta galdutako monumentuak berreskuratu nahi dituzte.



GB

Joareak estutu eta mozorroak prestatzeko tenorea

SASOI

ESKABAZIO ETA GARRAIOAK



- LUR MUGITZEAK
- LUR ZANPATZEAK
- URBANIZAZIOAK
- LUR BERDINKETAK
- KANALIZAZIOAK
- GARRAIOAK



Tel.: 948 45 15 96

Sakelekoa: 667 42 46 35

**Leku-Eder, 4 - 1.D
31791 SUNBILLA
(Nafarroa)**

DATUAK...

• Gure Irratiak abenduaren 24an 20 urte bete zituen. Une txarrak gaudituta, egun 17 langile aritzen dira bertan. Egoitza nagusia Baionan egon arren, Lapurdiko herri gehienetara iritsi nahi dute emisioekin. Hurbiltasunezko irrattia egitea izan da irratiaren helburua sortu zenetik

• Dani Duhalde 1999an Gure Irratiaren administrazio kontseiluan lanean hasi zen. Irratiaren XX. urteurrenean komunikabideen aitzinean prentsa arduraduna izan da.



Dani DUHALDE *Gure Irratia-ko administrazio kontseilukoa*

«Hurbileko irrattia egin nahirik, bi estudio berri ireki ditugu»

Rakel GOÑI

Nola sortu zen Gure Irratia? Zein helbururekin?

Jende batzuk eskuarazko irrati bat egin nahi zuten. Garai hartan ez zen eskuarazko irratiarik eta gure hizkuntza behar zen plazaratu. Familieta eta eguneroko bizian euskara gutti mintzatzen zen. Orduan sortzaileek ikusi zuten irratiak behar zuela hori bulkatu. Anitzek pentsatu zuten erokeria zela baina, 1981ean sortu zen irrattia Milafrangan, teknikariaren etxean hain zuten ere. Irrati libreen garaia zen. François Mitterrandek irrati libreak arautzeko legedia egin zuen eta sortzaileak hontaz baliatu zen Gure Irratia martxan jartzeko. Ondotik pentsatu zuten behar zirela Baionarat hurbildu, BABra, eta inguruan zeuden euskaldun ainitzentzat zerbait egin. 1983an lehenbiziko lokala ukan ginuen.

Zeintzuk izan dira irratiak izan dituen arazorik nagusienak?

Ainitz elkarteetan bezala diru arazok izan dira larrienak. 1986an arazo ideologikoak egon ziren, denak ez zeuden ados, ez zuten pentsamolde

«Xareta eskualdean baimena ukan ginuen emetteur bat ezartzeko eta Azkainen frekuentzia lortu dugu»

berdina, tirabira ainitz egon zen. Garai hartan ere ez zen lanpostu finkorik eta jende ainitz pasatu zen irrati-tik. Iparraldean ere zailtasunak baziren eskuaraz ari ziren kazetariak atxikitzeke. Biziki guttik bazuten formakuntza. Bakoitzak behar zuen bere jakitatearekin lan egin, amateurismoari lotutako lana egiten zen.

1992-93an krisi handi bat izan zen. Irratia ia hil zen, batetik diru arazoengatik eta beste aldetik ere tirabira ainitz bazirelako. Orduan erabaki bortitza hartu ziren. Administrazio kontseilu berri bat osatu zen eta honek presidente bat izendatu zuen. Bera enpresa mundutik jiten zenez, hasi zen irrati barnean antolakuntza berri bat egiten. Lehenbiziko gauza zuzendari baten hartzea izan zen eta formakuntzarekin hasi zen. Irratia enpresa bihurtu zen. 1997an lokal berria ukan ginuen Baionan.

Zeintzuk dira Gure Irratiak dituen proiektuak?

Irratiak bere zutabeak ongi finkatuak ditu. Eta orain gelditzen dena da, hizkuntzari buruzko formakuntza segitzea. Komunikabide modernoak bihurtu behar dugu, eta hasiak gira, webgune bat sortu dugu eta eskuarazko kurtsoak ere interneten bidez ukaiten ahal dugu. Sortzaileen xedeen artean hurbiltasunezko irrattia egitea zen, eta ideia hori nahi dugu atxiki, eta hastekoz bi estudio berri iriki ditugu. Bat Hazparden, barnekoalderat hurbiltzeko eta jendeen bizitza eta arranguren lekuko izateko, eta bigarrena Hendaian.

Hurbiltasun hau bilatu nahirik Sara, Senpere eta Azkainen errepi-kagailuak jarri dituzue...

Bai, gure helburuetan teknika mailan aitzinamenduak egitea eta entzumen hobetzea dago. Bagenekien Azkainen eta Saran adibidez ez ginel ongi entzunak, eta lehenik Xareta eskualdean baimena ukan dugu emetteur bat ezartzeko eta ondotik Azkainen frekuentzia berri bat lortu dugu.



2004EAN IBILBIDEA OSATUA EGOTEA NAHI DUTE

Urdazubi-Baztango Santiago Bideko Lagunak bidea berreskuratzen ari dira

Urdazubi-Baztango Santiago Bideko Lagunak Elkartea duela urte eta erdi sortu zen Done Jakueren bidea zaindu, erromesei ostatu eman edo, bertzeak bertze, galduak ziren erakin eta monumentuak berreskuratzeke. Oraingoz 50 kide dira elkartean, baina, pixkanaka handitzen joan nahi dute proiektu guztiak aitzinet ateratzeko. 2004an urte Xakobea ospatuko da, ordurako Urdazubitik Belateraino doan, Done Jakue bidea erromesentzat erabilgarria izatea nahi dute.

Argazkiak: Bittoriano Inbuluzketa

Rakel GOÑI

2000. urteko irailaren 27an Urdazubi-Baztango Santiagoko Bideko Lagunak Elkartea osatu zen. Gaur egun 50 kide dira eta bere helbururik nagusia, Urdazubitik Belateko Monastegira doan Done Jakue (Saint Jacques) bidea moldatzea eta berreskuratzea da. Bertzalde, bide hau egiten duten erromesei ostatu ematea eta bidea zaintzen segitzea nahi dute elkarteko kideek.

HISTORIA PIXKA BAT

Garai batean merkatariek eta erromesek hartzen zuten biderik hautatuena, «estrata» edo Baionara zihoan «maxima vía» deitu izan zitzaion. Bide hau Urdazubi eta Baztan zeharkatzen zituen Belateraino, Arre herrian, Orreagatik datorren bidearekin elkartzeko. Urdazubi-Baztango bidea, Orreagakoa baino errazagoa zen, Ibañeta eta Mezkititzeko mendateak, Otsondo eta Belatekoak baino mal-

kartsuagoak direlako. Erromesen zainketa Urdazubiko Monastegian eta Belateko ospitalean egiten zen.

URDAZUBI-BAZTANGO SANTIAGO BIDEKO LAGUNAK

2000ko irailaren 27an elkartea sortu bazen ere, aitzinetik ekitaldi aunitzetan parte hartu zuten kideek. Suitza, Alemania edo Ingalterrako erromesekin bidea egin izan dute. 1989an Dax-Iruñea Ibilaldian ere, parte hartu zuten batzuk. Geroztik, Urdazubi eta Baztandik pasatzen diren erromesei laguntzen saiatzen dira Santiago Bideko lagunak.

ELKARTEAREN HELBURU ZEHATZAK

Iaz Urdazubitik Otsondoraino doan Done Jakue bidearen zatia berreskuratu zuten. Udalekuetara etorritako Europa osoko gaztetxoek lagun-tzarekin, inguru honetan agertu den kislabea (beheko argazkian ageri

SANTIAGOKO BIDEA URDAZUBI ETA BAZTANEN



Salvatore Monastegia Urdazubin



Amaiurko Pilarreko Amaren basiliza



Urrasungo Santiago basiliza



Elizondoko Santiago Eliza



Anizko Trinitateko basiliza (berreraikitzeke dagoena)



Belateko Santiago basiliza eroria (berreraiki nahi du elkarteak)

dena) garbitu eta berreraikitzea lortu dute. «*Aurten ere Amaiurtik Lekarozerraino doan bide zatia berreskuratu nahi dugu, elkarteko kideen artean eta udalekuetara etorriko diren Europako gazteen artean. 2003an Belateraino iristea espero da. Honela 2004an, Done Jakue urtean, bide osoa erromesentzat bereziki eta nahi duen guztiarentzat ere erabilgarria izatea espero dugu.*» azaldu du Luis Mari Ruizek, elkarteko idazkariak.

BIDETIK ATERPEAK

2000ko urriaren 29an Azkain, Sara, Zugarramurdi ibilbidean, hiru elkarte bildu ziren: Akitaniako, Nafarroako eta Urdazubi-Baztango Santiago bideko lagunak. Hiruen artean Ustaritzen aterpe bat eraiki beharra ikusi zuten, etapa luzeak saihesteko. Honekin batera Urdazubin ere erromesek lo egiteko tokia bilatu behar zela pentsatu zuten. Nafarroako artzapezpikutzak Urdazubiko Monastegiaren zati bat utziko du

aterpea eraiki ahal izateko. Lekarozko aterpeak ere zenbait gela moldatu dituzte erromesak hartzeko. Luis Mari Ruizen ustez «*Urdazubitik Lekarozerraino doan bidea batzuentzak sobera luzea izanen dela uste dugu. Horregatik, Amaiurren ere ohatzeak jartzea gusatuko litzaiguke. Momentuz, Amaiurko herriak Herriko Etxeko sabaia utziko digu udan lanera datozen gazteak bertan ostatu hartzeko.*».

ORREAGATIK 26.000 ERROMES

BAINO GEHIAGO PASATU ZIREN IAZ
Orreagatik igarotzen den Santiagoko Bidetik iaz 26.000 erromes baino gehiago pasatu ziren. Nafarroako Santiago Bideko Lagunen Elkartearen arabera Orreaga inguruan, dagoeneko, ez dago modurik hainbertze erromes hartzeko. Horregatik, Urdazubi eta Baztandik pasatzen den bidea berreskuratzearekin erromesak gehiago bana daitezke, eta zerbitzu hobea jaso dezakete.

Urdazubi-Baztango Santiago Bideko Lagunen elkarteak, gai honetan interesatua dagoen edonor sar daiteke. Nahikoa da lan egiteko gogo pixka bat izatea eta urteroko kuota bat ordaintzea. Familiak, 30,05 euro dira eta banaka 18,03 euro. Jose Mari Garmendiarengana zuzendu behar dira interesa dutenak.



Urdazubin dagoen kisulabe hau lurrarekin guztiz estalia zegoen. Iaz berreskuratu zuten udan lanean aritu ziren Europa osoko gazteak.

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoin.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopearena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	2.400 Pta.
Ipar Euskal Herria	180 Libera
Europa	4.600 Pta.
Amerika	16.500 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

N-121 errepidea, Beratik Behobiara



Nafarroako Gobernuak Endarlatsa artekoa akautzen duen momentuan hortik Behobiarakoa egingen dela erran zigun Gipuzkoako diputatuak

Jose Luis ETXEGARAI Lesakako alkatea

Antton Jaime, Gipuzkoako Diputazio errepidearekin egindako bileran, Bera-Behobia zatia noiz eta nola konpondu behar duten behingoz argitzea eskatu genion, lehen zegoen diputatuari eskatzen genion gauza bera. Nafarroako Gobernuarekin duten harremana behingoz konpontzea eta jabetzaren arazoa behingoz alde batera uztea. Eta ez badute uzten ere, bederen elkarrekin eseraraztea eta hitzarmen bat lortzeko bidea paratzea. Jabetzarena ez zutela alde batera utziko erantzun zigun, berarentzat garrantzitsua delakoz. Nafarroak Endarlatsaraino konpontzen duen momentutik, eurek Endarlatsatik Behobiara moldatuko dutela erran zuen. Horretarako, partikularrei terrenoak espropiatuko dizkiote, baina baita Nafarroako Gobernuari ere. Arazorik handiena hori ikusten dut: Nafarroak mantendu nahi du titularitatea eta Gipuzkoak, errepide berria egin behar denez eta 1851n karretera egin zenean zeuden arazoak ez daudenez orain, beretzat nahi du. Gipuzkoan dauden errepide guztiak kondiziotan mantentzeko gai dira orain. Beratik Endarlatsa bitarteko zatiaren lanak 2005. urtera arte ez direla akautuko kontuan hartuz, Gipuzkoako Diputazioak segidan egingen lukeela erran zigun. Niri sobera luze iruditzen zait 2006. urtera arte espetu behar izatea eta honela erran genion berari ere, guk ezin genuela herrira etorri eta presentatzen ahal proiektu hori. Epe hori laburtzeko aukerak aztertzea eskatu genion. Ez zuen, ez baietz ez ezetz erran. Nafarroak egingen duen momentuan berak egingen zuela erran zuen, inolako fetxarik paratu gabe. Hori bai, diputazioaren akordio bat eman zigun, Nafarroari titularitatea onez on eskatuz, horrek epea aunitz laburtu eta bi alde-en arteko harremana hobetuko lukeelakoan. Orain, Nafarroako Gobernuak Igantzi eta Bera arteko errepidearen lizitazioa onartu du. Dударik ez dago errepidearen aferak luze joko duela, oraindik proiektuetaz ari baigara solasean eta proiektua onartu ondotik, obrak hasi eta bukatu arte izanen dira bere arazoak. Guk ez onartu arren, 2006. urtea ailegatuko da errepideaz mintzatzen.



Nafarroako Gobernuan eta Gipuzkoako Diputazioan presionatzen segituko dugu

Josu GOIA Berako alkatea

Urtarrilaren 10ean Gipuzkoako Diputazioarekin izandako bileratik ezin dugu ondorio positiborik atera. 2005. urtera arte ez omen dute planean sartuko Endarlatsa eta Behobia arteko errepide moldatzea. Nik uste hemengo jendea eta enpresak afera honetaz nazkatuak daudela eta ezin dutela horrenbertze denbora espetu. Dena den, Nafarroako Gobernuak orain erabaki du tratatua zein izanen den, eta hortan ados daude Gipuzkoako Aldundiarekin... hori zerbait bada, batek alde batetik eta bertzeak bertzetik egin baldin bazuten, orduan adostasunera ailegatzea zailagoa izanen baitzen. Baina zer gertatzen da? Nafarroako Gobernuak baditu finka batzuk Gipuzkoako lurretan, eta Diputazioak hori espropiatzeko aukera du, bertze edozein partikularrekin bezala. Hortan arrazoia dute, baina egitekotan, berehala egin dezatela. Guri gelditzen zaiguna presionatzea da, bai Nafarroako Gobernuan Bera-Endarlatsa tartea egiteko, baita Gipuzkoan ere, Endarlatsatik behobiarakoa egiteko. Bertzenaz, izugarrizko botila-lepoa sortuko da hemen.



Bi aldeak politika egingen ari dira, eta tartean gaudenak gara kaltetuenak

Miguel Mari IRIGOIEN Etxalarko alkat

Bileraren balorazio hotza egin behar dugu nahi-taez. Gipuzkoak titularitatea galdetzen dio Nafarroako Gobernuari eta horrek afera guztiak igual prozesu judizial batean sartuko du edo eztabaida luze batean. Bien bitartean, gipuzkoarrek ez dute errepide planean sartu Endarlatsa-Behobia tartean, eta plan horretan sartu gabe ez dute egiteko intentziorik... beraz, laburrenez 2006. urte inguruan hasiko litzateke. Ez dute inolako konpromisorik hartu. Aldika pentsatzen dut bi alderdiak politika bertzerik ez direla egingen ari, eta gu, tartean gaudenak, gara kaltetuenak. Berako tuneletik hasi eta Behobia arte, ez alde batean eta ez bertzean, ez dago proiekturik, ez aurrekonturik... Borondate kontua bertzerik ez da. Egitan ez da deus, paper bustia bertzerik. Hemengo Udalek, iñauteen ondotik bilera batzuk egitea pentsatzen dugu, eta aintzinbiderik ez bada, mobilizazioaren batzuk egitea proposatu beharko dugu. Pilota bat bezala gabilta, alde batetik bertzeri, baina herritarrek noiz arte esperatu behar duten ikusita, ez da inor conforme izanen.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Euskara Nafarroan

Nafarroako Gobernuak euskarari egindako erasoak biderkatu egin dira azken bolada hone-tan. Azkeneko erasorik bortitzena, euskaraz jar-dun diren hedabideei di-ru-laguntza murriztea izan da. Horrek erran nahi du, Ttipi-ttapa eta Xaloe Te-lebistek, Ttipi-ttapa al-dizkariak eta Xorroxin Irra-tiak orain arte baino diru guttiago jasoko dutela 2002. urtean Nafarroako Gobernuaren eskutik. Ai-patu komunikabide hauei diru-laguntza murriztu dien heinean, bertze bat-zuk gabe utzi ditu; Eus-kaldunon Egunkariak as-tero argitaratzen duen Na-farkariarekin egin duen bezala. Diario de Nava-rrak euskaraz argitara-tzen duen orrialde baka-rrari, aldiz, hiru milioitara (oker ez banago) goitu dio dirulaguntza.

Bertze aldetik, geroz eta maizago aditzen du-gu Miguelico euskararen inguruan solasean edo euskararen aldeko plan-tak egiten. Azkenekoak

hauexek izan dira: Feli-pe Printzea Nafarroara etorri zenean, hasierako agurra euskaraz egin zu-ten biek, nola Printzeak hala Presidenteak.

Abenduaren 19an, Sanzek Radio Euskadin adierazi zuenez, euska-raren inguruan bere go-bernuak egiten duen po-litikarekin hizkuntza «des-politizatu» nahi omen du, eta euskararen «genozi-da» deitzen duten pan-karatak ikusten dituen-ean aunitz mintzen dela zioen, «nik asko maite dut euskara» erranez.

Orainik aunitz ohartu ez badira ere, Miguel San-zek «xaharren» botoak eskuratzeko egiten ditu horrelako adierazpenak, eta lortzen dituela onar-tu behar dugu. Baina, ba-dira urruti joan gabe, hur-bil aski, euskara Nafa-rroan atzeraka joan da-din ahalbidetzen dutenak, eta tamalgarria da, euskaraz bizi den jendeak bere «teiltatura» harriak modu honetan botatzea.

Urte berriari begira ja-rriz, badirudi gauzak ez

dutela onera egingen, Na-farroako Gobernuak ez baitu aldatzeko inolako joerarik erakutsi.

Akitzeko, hauxe erran nahi dut: Nafarroako Go-bernuari kontra egiteko modurik onena, euska-raz bizitzen jarraitzea da; naparrak garen heinean, euskaldunak ere bagara, eta ez dugu utziko euskaraz bizitzeko dugun es-kubidea inork zapaldu de-zan.

Iratxe Eizagirre
Aranburu (Sunbilla)

Ez dugu gure hautetsien hautua ulertzen

Duela guti, gure hau-tetsiek idazkari orokor bat hautatu behar izan dute. Kandidaturak jaso dituz-te: euskara dakien gure herriko pertsona batena, besteak beste. Horrez gain, esperientzia ba-zuen. Baina gure haute-tsi maiteek euskara ez

OHARRA:

Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

Ez dira argitaratuko beren nortasuna ager-tzen ez digutenen iritzirik.

dakien atzerritar bat hau-tatu dute. Nola egin de-zakete horrelako aukera bat, aldi berean haute-tzien gehiengoak euska-ra defenditzen dutela erranik? Berriz ere gure nortasuna eta gure kul-tura zanpatzen dituztela erakutsi digute. Euska-raren aldeko zuen hitzak oso politak dira, eta go-go handia erakusten du-zue gure hizkuntza sal-batzeko.

Galdera berriz pau-satzen dizuegu: Zergatik egin duzue aukera hori,

zuen hitzak praktikan emateko aukera zinate-larik? «Elgarrekin» da Senpereko herria kude-atzen duen lista. Elga-rrekin euskararen alde noiz? Elgarrekin mintza-tu, elgarrekin dantzatu, elgarrekin bizi, elgarrekin euskararen alde noiz?

Euskal Herrian
Euskaraz. Senpere.

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Ximiniak
Angelak	Erlaiak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrakizak
Pilareak	

'Abujandakoa' Mazorra
Zahar antzekoa Txapeakoa

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

J. RAMOS

Zolak akutxilatatu eta
barnizatzen dittut

948631342 BERA • 948637172 LESAKA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • 948 637 503 • LESAKA

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



El mundo de los PIRINEOS, urtarrila-otsaila (25. zbk)

«Laxoa kirol eta kultur arloan altxor bat dela, horretaz konbentzitu behar ditugu erakundeak. Jakin behar dute ezin dutela pilota plaza gehiago estali, hori laxoaren heriotza izanen litzatekeela».

Tiburtzio ARRAZTOA
Laxoa Elkartekoa
Pirineos 02-01

«Malerrekan, kirola baino erakargarriagoa da desafioa, apostua. Euskal Herriko aizkolarari txapelketaren finalean 300 ikusle bildu ziren Donezteben. *Kategoria*

guttiago zuten inguruko bi aizkolariren arteko desafioan, berriz, 800».

Zarbo IBARROLA
Doneztebeko kazetaria
Pirineos 02-01

«Lekutan daude oraindik aitzak lortutako markak. Jendeak uste du gazte hasteagatik gauzak errazagoak direla, baina ez da horrela. Harriari bost kilo gehiago jartzea ez da erraza».

Inaxio PERURENA
Leitzako harrijasotzailea
Nafarkaria 02-01-04

• 11 GALDERA LABUR •

Juanjo IBARRA *Sunbillako albintea*

• **Noiztik mozorratzen zara lñaute-rietan?**

Duela 18-20 urtetik.

• **Aita Santuarena izan al da gustoen jantzi duzun mozorroa?**

Denak ditut gustoko, baina hori lehen izanik, oroimen hagitz onak ditut.

• **Zer nahiago, igandean karroza gainean edo baserriz baserri puxka biltzen?**

Nire adinarekin, karroza gainean ibiltzea.

• **Noiz ikusiko dugu berriz ere frontoiko parodia?**

Zaila ikusten dut berriz egitea.

• **Merezi al du karroza prestatzen joaten den denbora eta dirua?**

Bai, dudik gabe.

• **Koadrilla gazteek emanen al diote segida karrozak ateratzearen ohi-**

turari?

Bai, jendeari gogo haundiarekin ikusten zaio honekin segitzeko.

• **Albintea zara, noiz izaten duzu lan gehiago, lñaute-rietan edo San Tiburtzioetan?**

San Tiburtzioetan.

• **Noizbait kantatu al dizute, «Al aguacil, hay que cortarle...»?**

Pila bat aldiz, baina batez ere juer gatan.

• **Saihesbideak zer ekarri dio Sunbillari?**

Lasaitasuna eta turismoa.

• **Palaz aparte, egiten duzu bertze kirolik?**

Bai, bizikleta eta neguan eskia.

• **Eta ikusteko, zein da gehien gustatzen zaizun kirola?**

Pilota.



FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 900 704704

☎ 948 637404



Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa



☎ 948631076 • BERA



**BORTZIRI
UNION ANAIK**
sukalderako halizariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxe: 948 637 266

H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrial
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

EUSKARA

Azken pezeta eta liberak eta lehen euroak euskararen alde

Bai Euskarari kanpaina egin duen Kontseiluarentzat izanen da dirua

titi-ttapa

Abenduaz geroztik gure eskualdeko denda eta ostatuetan eltze-itsuak paratu dituzte euskararen aldeko dirua jasotzeko. Zehazkiago, Kontseilua finantzatzeko dirua bilduko da herriz herri leku ezberdinetan paratu diren eltze-itsu hauetan. Kontseilua euskalgintzarekin lotutako 51 erakunde eta elkarteren bilgunea da, "Bai euskarari" kanpaina egiteagatik ezaguna dena.

OTSAILAREN 28RA ARTE DIRUA BILTZEN

Kanpaina honen ize-na da «Azken pezetak/liberak eta lehen euroak euskararen alde» eta otsailaren 28ra arte luzatuko dute, alegia euroa bakarrik erabili ahal izanen dugun egunera arte. Tarte horretan lortzen dituzten txanponak eta billeteak hiru proiektu hauetarako bideratuko dituzte, bertzeak bertze: Bai Euskarari Akor-



Irudi honek agertzen duenez, azkeneko pezetak eta liberak eta lehendabiziko euroak euskararen alde bildu nahi ditu Kontseiluak, otsailaren 28a bitarte.

dioa Herrietan, Bai Euskarari Ziurtagiria eta Hizkuntz Eskubideen Behatokia.

BAI EUSKARARI AKORDIOA HERRIETAN

Euskara bultzatzeko planak bideratzen ditu Kontseiluak, bai herria mailan eta bai eskual-

de mailan. Bai Euskarari Ziurtagiriari dagokionez, Kontseiluak gizarte eragileei ematen dien ziurtagiria da, euskararen normalizazioaren alde eginiko lana kreditatzeko. Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren bitartez herritarrek zein erakundeek kexa

eta salaketak egiten ahal dituzte, hizkuntza eskubideen urraketak suertatu diren kasuetan.

Beraz, euskararen aldeko txanpon zahar eta berriak uzteko eltze-itsuak zure herrian non dauden jakin eta laguntzeko deia egin du Kontseiluak.

INGURUMENA

Arrantzale bati 160.000 pezetako isuna jarri diote

titi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduak 961,63 euroko isuna (160.000 pezeta inguru) paratuko arrantzale frantziar bati Bidasoan lege kanpo aingira bat harrapatzeagatik. Salaketa joan den urteko uztailaren 17an egin zuten Elizondoko kuarteleko guardiazibilek. Arrantzale horrek egin behar ez den guzira egin zuela erraten ahal da: lizentziarik gabe arrantzatu zuen; arrantza sasotik kanpo; hamabortz zentimetro bertzerik ez zituen aingira harrapatu zuen, guttienekoa baino sei zentimetro tikiagoa alegia; eta noski, gero ez zuen errekarra bueltatu. Horren arabera, bortz lege hauste egin zuen Le Mée Sur Seineko arrantzaleak, horietatik bi larriak. Lege hauste larri hauetako bakoitzarengatik 300, 51 euro (50.000 pta) ordaindu beharko ditu eta arin bakoitzarengatik 120,20 euro (20.000 pta). Guzira, 961 euro pasatuak.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziralean, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031 • BERA

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735



BERA

Zinekluba osatzeko lehen pausua emanen da ortzegun honetan

Bortz herrietako zinezaleak Kultur Etxean bilduko dira

Asier GOGORTZA

Ortzegun honetan, urtarrilak 24, hainbat zinezale bilduko dira Berako Kultur Etxean, arratsaldeko 8etatik aitzinera. Bilkura honen helburu nagusia herrian zinekluba osatzea izanen da, Kultur Batzordearen proposamenari segida emanez.

Gai hau, izan ere, aspalditik zegoen Kultur Batzordearen agendan, urte osoko kultur egitaraua egiterakoan hutsune nabarmena ikusten baitzuten zazpigarren artea deitutakoaren inguruan. Horrela, bidenabar, 2000. urteko udan Berako Udalak eta Bertizko Turismo Partzuergoak erositako bi zinema proiektoreei erabilera emanen zaie.



ARTXIBOKOA

Jon Arretxe idazle bizkaitarrak bere liburuetakoa bat aurkeztuko du otsailaren 1ean Berako Kultur Etxean. Arretxe bidai liburuak idazteagatik egin da eza-gun azken urteotan, izan ere, bortz kontinenteetan barna izandako abenturak eta inpresioak paperera pasatu ditu bidaietatik itzultzean. «Zazpi Kolore» liburuak bidai guzi horietatik 7 pasarte biltzen ditu, eta zazpi kolore desberdinekin lotzen ditu berak izandako bizipenak. Liburu aurkezpena diapositiba emanaldi batez lagundua izanen da. Liburutegiak eta Kultur Batzordeak antolatu duten bidaietako literatura zikloaren lehen pausua izanen da, baina etorriko dira gehiago ere.

FLASH

Herriko Etxeko mendi materiala ebatsi dute

Idoiako lepoan Udalak duen biltegitik 1.000 euro inguruko balioa zuten tresnak ebatsi dituzte orain bi aste. Lehen ITGren lokala izandako honetan gordetzen ziren mendiko zerrakurak egiteko materialak.

Ezkondutako gabeko bikoteen erregistroa

Nafarroako Boletín Ofizialean berriki argitaratu denez, erregistro hau arautzeko azken pausua eman du Udalak dagoeneko. Orain arte erregistroa indarrean baldin bazegoen ere, erran behar da herriko lau bikotek soilik emana zutela izena.

Bertso afaria

Otsailaren 2an Irazu eta Peñagarikanoren bertso afaria egingen da Zubiondo jatetxean, arratsedeo 9etatik aitzinera. Afarirako txartelak jatetxean bertan daude salgai 22,84 eurotan (3.800 pezeta).

Abesbatza

«Atzokoak» abesbatza gipuzkoarrak kontzertua eskainiko du urtarriaren 26an Berako Kultur Etxean, arratsedeo 8etatik aitzinera.

Josu Goia, Ken7 eta Etsaiak

Kontzertu aski berezia egin zen joan den larunbatean Hendaian, bertako Gaztetxearen alde.

EPAIKETAK

Audientzia Nazionaleko fiskalak sei urteko gartzela zigorra eskatu du Jon Abrilentzat

Jesus Alonso fiskalak 6 urteko gartzelaldia, denbora berean kazetari izateko inhabilitazioa eta 20 hilabetez egunero 12 euro ordaintzea eskatzen du Jon Abril kazetariarentzat, TTIPI-TTAPA TELEBISTARENTZAT egndako bideo grabazio batengatik, «ETArekin ko-

laborazioa» argudiatuz. Fiskalaren eskaera prentsara filtratu da zuzenean, nahiz eta oraindik epaileak ez duen erabaki epaiketa egingen den edo ez. Izan ere, Iñigo Iruin, Jon Abrilen abokatuak autoaren kontrako helegitea aurkeztu du proba eskasiagatik.

Abril berak lotsagarritzat jo du fiskalaren eskaera. «Adierazpen askatasunaren eta euskararen kontrako eraso da» adierazi du. «Grabatutako irudiek momentu horretan notizia zena erakusten dute, presoak garraiatzen zuen autoa, alegia. ETB eta Espainiako telebistek irudi berdinak emititu zituzten, baina inork ez die deus ere erran» gaineratu du.



Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA



Altzate, 19•948630786 •BERA

LESACA

Espainiako nesken futbol txapelketa herrian jokatu zen

Horren aurka, «Guria Euskal Herria» Ekimena sortu zen

Aitor AROTZENA

Urtarrilaren 11, 12 eta 13an jokatu zen Maste-gin 25 urtez beheitiko eta 17 urtez beheitiko nesken Espainiako Au-tonomia arteko futbol txapelketaren kanpora-keta fase bat. Zehazki, Nafarroakoarekin bate-ra, Balearak, eta Gaz-tela-Leongo selekzioak aritu ziren. Izaro Mitxe-lena lesakarra Gaztela-ko selekzioarekin aritu zen, Zamoran ikasten baitu. Txapelketa honen aurka «Guria Euskal Herria» Herri Ekimena sor-tu zen, hainbat elkarte, talde eta pertsona bil-duz. «Atzerriko txapel-keta hau Lesakara ekar-tzea» salatu zuen Herri Ekimenak.



AITOR AROTZENA

Garai batean Karmeliten komentua izandakoan Kultur Etxea eta liburutegia egiteko asmoa du Udalak. Horretarako Hirigintza udal planaren aldaketa egi-tea erabaki du Herriko Etxeak, EAJ-EAren aldeko botuekin eta Batasunaren abstentzioarekin. Hauen erranetan, Kultur Etxearen alde egon arren, «*orain-dik ez guk, ez herriko kultur elkarte, talde eta lagunek orokorrean ez dakigu nolako Kultur Etxea izanen den*». Alkatearen erranetan, proiektu hau «*ordu aunitzeko negoziazioaren ondorio da*».

FLASH

Bortzirietako bertso txapelketa

Urtarrilaren 5ean joka-tutako Bertso Mara-toiaren bitartez erabaki zen Bortzirietako IV. tal-dekako bertso txapel-keta. Xabier eta Jon Sil-veira anaiek eta Erika Lagomak osatutako hi-rukotea suertatu zen ga-raile. Maila handia eman omen zuten parte har-tu zuten sei hirukoteek, antolatzaileen adierazi dutenez.

Oihanberritze lanak

Berdabio Basogintza enpresari eman dio Udalak Otsango, Agiña eta Malkorra ingurueta-ko oihanberritze lanak. Otsangoko lanak 42.604 eurotan egingen dute (7.088.870 peze-ta); Agiñakoak 40.315 eurotan (6.708.015 pe-zeta) eta Malkorrakoak 20.310 eurotan edo 3.379.400 pezetatan.

San Fermin elkartearen saskia

San Fermin jubilatutako el-karteak Eguberrietan zozketatutako zarea-ren zenbaki sariduna 340a da. Antxordoki ileapain-degian saldua da, bai-na hau idazterakoan ez da irabazlerik agertu.

Herri Eskolak

norbere burua ezagutu eta estimatzeko ikasta-roa antolatu du. Izen emateko 3 euro (500 pta) ordaindu behar di-ra okindegian eta hila-ren 29a hasiko da.

KIROLA

Mailari eusteko borrokan ari da kadete mailako Beti Gazte

Gipuzkoako kadete-en lehen mailan kate-goria eusteko borrokan ari da kadete mailako Beti Gazteko futbol tal-dea, Koldo Erkizia eta Mikel Iriarte entrenatzai-leen erranetara. Lesa-karrekin batera, aranz-tarrak, etxalartarrak, igantziarrak eta donez-

tebarrak ari badira ere, taldearen arazorik han-diena jende falta da. Ho-nela, mailaz ez jaustea izanen dute aurten hel-buru nagusia. Momen-tuan, jautsiera postu ho-rietan daude, baina bi-garren itzulian zulotik ateratzea espero dute gaztetxoek.



AITOR AROTZENA

Kadete mailako Beti Gazteko futbol taldearen hel-buru nagusia kategoria mantentzea da aurten.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnua.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESACA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESACA
© 948 637826

ANIA
jantaridena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESACA

KATU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESACA

XATURETXEA
Zahar-jatetxea
Tfnua: 948637027 LESACA

ETXALAR

Santiago Olagarai eta Joxe Mari Berrueta gailen Larraburuko mus txapelketan

Partxiseko irabazleak Enkarna Iparragirre eta Mari Ameztai izan ziren

Joseba eta Nerea

Azaroaren 18an hasi zen urtero-urtero Larraburua jubilatuen elkartek antolatzen duen mus eta partxis txapelketa. Igandero Larraburuan bildu ziren 6 astez eta azkenean erabaki dira txapeldunak. Musean apuntaturiko 16 bikoteetatik hoberena Santiago Olasagasti eta Joxe Mari Berruetak osatutakoa izan zen, finala Antonio Ameztai eta Kandido Egurce-ri irabazi ondotik. Hirugarren postuan Juan Maia eta Santiago Mikelestorena gelditu ziren eta laugarren postua berriz Prudencio Etxabide eta Jabier Irisarrik eskuratu zuten.

Partxisean, irabazleak Enkarna Iparragirre eta Mari Ameztai izan ziren eta azpitxapeldunak joan den urtean lehen postua lortu zutenak: Feliziana Zubieta eta Milagros Santesteban. Sari-banaketa urtarilaren 13an egin zen eta antzineko egunean



JOSEBA OLAGARAI

Larraburuko mus eta partxis txapelketetan irabazle suertatutakoak.

parte hartu zuten guztiak afari baten inguruan bildu ziren. Gure jubilatuek ez dute denborarik galtzen eta igande honetan, urtarilak 27, hasiko dute berriz "Magra txapelketa".

Etxalarko Arkupeko kideen besta

Etxalarko Arkupeko kideek beraien eguna

ospatzen dutela badira urte saila eta aurtengoa ere otordu eder baten inguruan bildu ziren. Orain arte udaberria aukeratzen bazuten ere egun hau ospatzeko, aurten hilabete batzuk aitzindu dituzte. Joan den igandean, urtarilak 20, bildu ziren Arkupeko guztiak. Eguna mezarekin hasi zuten, bereziki aurten hildakoak

oroituz eta ondotik, Anttonion elkartu ziren bazkaltzera. Ondotik, Ramonxoren musika izan zuten.


Bidasoako XXX. Txirrindulari itzulia

Aurtengo Bidasoako Txirrindulari itzulia gure herritik pasatuko da. Maiatzean izanen den itzuli honetako hiruga-

rrer etapak Etxalarren izanen du helmuga maiatzaren 10ean. Hurrengo egunean, herri- tik abiatuko da laugarren etapa. Udalak 450.000 pezetako diru- laguntza eman diola Txirrindulari itzuli honi.

Iñauteriak prestatzen

Inguruko herri batzutan dagoeneko iñauteriak hasi baldin badira ere, Etxalarren hamabortz egun espetu beharko ditugu egun hauetaz gozatzeko. Izan ere, otsailaren 7an, ortzeguna, hasiko ditugu iñauteriak eta hurrengo asteko astelehena eta asteartean, otsailak 11 eta 12, emanen ditugu akaututzat. Hala ere, dagoeneko hainbat herri- tar lanean hasi dira beste egun hauetarako. Landagain eskolako haurrak badituzte aste batzuk Ortzegun Gizen eguneko antzerkiak prestatzen ari direla, bertze sorpresa batzue- gain.



IGANTZI

Herria ezagutuz

Ur hornidura moldatzen hasteko laguntza agindu dute Iruñeatik

Otsailaren 1a eta 2an izanen dira aurtengo iñauteak

Oskar TXOPERENA

Igantzi urarekin azken urteotan izugarriko arazoak ditu. Izan ere, ura biltzeko Fraingo Iruiturietan dagoen azpiegitura 1976an egindakoa da eta geroztik herriaren beharrik izugarri aldatu dira, etxe aunitz egin da eta etxe bakoitzeko uraren erabilera ere aunitz aldatu da. Geroztik, guk dakigula, depositotik Arangoelutsako depositora bitartean doan tuboa aldatu da bakarrik. Horrez gain, herriko sareak ur isuri handiak omen ditu eta zenbait etxe eta baserri ere sare publikotik hornitzen omen da inongo kontrol eta kontadorerik gabe. Bada orain, Nafarroako Gobernuak sarearen zati bat moldatzeko diru laguntza onartu du. 288.000 euro (48 milioi pezeta) inguruko inbertsioa agindu du, depositoa bitarteko sarea moldatzeko, hau da, iturrietan ura behar bezala biltzeko eta bertze de-



OLAETXEAKOEN UTZITAKO ARGAZKIA

Heldu den astean, ortziral eta larunbatean, ospatuko dira aurtengo igantzi-ko iñaute goiztiarrak. Ez dugu uste azken urteetako egitarauak aldaketa handirik izanen duenik, eta egitarau horren barrenean orain dela bi urteko larunbat arratseko ekitaldia ekarri nahi izan dugu gogora, argazkian.

posito berria egiteko. Behin betiko proiektua egin gabe baldin bada ere, hasiera batean, deposito berria Arangoelutsakoa baino goi- tixeago egiteko asmoa omen du Udalak eta dagoeneko Sertecna enpresa aukeratu du proiektua egiteko. Negua idorra doa, eta honela segituz gero, arazo handiak izanen dira udan.

Azienda esplotazioak

Azkenean 11 dira dokumentazioa aurkeztu eta herrian onartu diren azienda esplotazio ofizialak. Lehendik 6 ziren legeztatze lanetan hasiak zirenak eta guziak onartu ditu Nafarroako Gobernuak. Iaz, berriz, bertze 5 aurkeztu ziren eta hauek ere onartu egin dira.

Pilota Taldea

Azaroan hasitako dirulaguntzen kanpaina- rekin segitzen du Pilota Taldeak. Dagoeneko 40tik goiti dira urtero 18 euro (3.000 pta) emateko izena eman duten laguntzaileak eta otsail osoan biltzen segitzeko asmoa dute. Pilota eskolaren laguntzaile izan nahi badu norbaitek, antolatzaileegana jo.



Kaxota

Arantzako errepide bazterrean, San Juan Xar baseliza baino pixka bat lehena- go, dago Kaxota etxe edo baserria. Errepide bazterrean dago, errepidearekin zeri- kusi zuzena dauka- lako, hain zuzen ere. 1890. urte inguruan egin zen Arantzako errepidea, eta garai hartan etxeak egiten zituzten kamineroen- tzat, zainketa lanetaz arduratzeko (Errepi- de nagusian, Mine- tako zubi inguruan ere daukagu bertze adi- bide bat). "Caseta de Camineros", "Casilla de Camineros" edo "Caseta de San Juan" deitu izan zaio doku- mento ofizial gehie- netan, baina, herri- tarrentzat Kaxota da as- paldidanik izenik era- biliena. Zenbait erre- pide zaindari bizi izan zen bertan, baina se- guraski, Miguel Una- nua izanen da adi- nekoek gehien go- goratuko dutena. Ka- xotan bizi izan zen ur- teetan etxe eta erre- karen inguruko lur za- ti gehienak baratz bihurtu zituen eta be- re familia herrian bi- zi izan da geroztik. 1962an salgai para- tu zuen Diputazioak eta Argarateberea baserrikoek hartu zu- ten subastan.

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzioko Bentak • © 948 627572 • Faxa: 948 637508

Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466

PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

ARANTZA

Ilbeltzaren 31tik otsailaren 3ra ospatuko ditugu Iñauteak

Apitta eta Argatsoroko oihan probetxamendua berriz enkantean

Nerea ALTZURI

Hitzetik hortzera «Urtarrileko malda» aditu, edo erran ere egiten dugu. Tira, bizi garen herri honetan ez da urteko bertze hilabeteetan ere zelai handirik! Bro-mak alde batera utzita, zorioneko euroak sorrarazi dizkigu eguneroan gorabeherarik haundienak. Saltokiak, ostatuak... eurotan ari dira lanean eta ez da ezerosotasun erreto haundirik agerian. Euroaren etorrerak, aranztar bat baino gehiagori ideia eman izanen dio iñauterietako mozorroa osatzeko. Hilabete honen akaberako eguna eta heldu den hileko estreineko hiruak hartuz, iñauteriak ospatuko baitira herrian. Aspaldiko

urteetako usadioari segida emanez, mozorro zuriek hartuko dute aste hondar luze horretan protagonismoa. Ekitaldiz blai izanen da ilbeltzaren 31n, eta otsailaren 1, 2 eta 3an: musika, mozorro desfileak, etxez etxeko puxka bil-tzea, dantzaldiak, bertsolariak, kirol saioak... eta noski, «puxka puxka!» eta «Iñautik-Iñautik!» bezalako hitzekin umore oihiak eta besta giroa bermatua izanen dira herritarren artean.

Herriko Etxetik berriak

Urtea abiatu bezain abudo, hilabeteko lehenbiziko ertziralean batzarra egin zen udal-ean. Azkeneko urteetan



TTIPI-TTAPA TB

Mozorro handiak eta mozorro tikiak baserriz baserri ateratzen dira, baina eskolako ikasleek ere beraien mozorro desfilea prestatzen ari dira.

bezalaxe, aurtan ere Rosarito Agestak egingen ditu Eskola, Osasun Etxea eta Herriko Etxearen garbiketa lanak, berea izan baitzen proposamen bakarra.

Bertzalde, Apitta eta Argatsoron oihan probetxamendurako lanak hirugarren aldiz enkantean paratu ditu Herriko Etxeak. Baldintza peguan aldatetak egin dira. batetik %10eko jautsiera onartu da 1.398 pinuen lotean, 44.749,56 euro edo

7.445.700 pezetan geldituz. Bertzetik, Apittan dauden 58 haritz amerikanoen lotean ere %10eko jautsiera egitea erabaki da. Horrela, 3.751,56 euro edo 624.150 pezetatan utziz. Azkenik, proposamena egiten duenak ez du Enpresario kalifikazioaren agiria aurkeztu beharrik izanen.

Bertzalde, su egurlo-teak nahi dituen herri-tarrak, urtarilaren 31 arte egin behar du eska- era. 30 euro kostatzen

da lote bakoitza eta eskaera egiteko orduan ere, zenbait urrats bete behar ditu eskatzaileak: eskaera egin duen familia bakoitzeko lote bat markatuko da; era berean, lotea ezin izanen da saldu edo bertze norbaiti eman; lotea hartu eta hilabete baten bu-ruan, gehienez jota, egurra bide bazterrera ateri beharko da, eta azkenik, soberako arbaz-tak pilatu eta gainean karga paratuz utzi be-har dira, haizeak ez era-mateko.

Azkenik, Azienda De-klarazioa egiteko epea urtarilaren 25ean akau-tuko da. Horretarako He-rriko Etxera joan behar da 9etatik 2etara.



MARTIKO
*Gure baserrietako
produktuak*

© 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA

**ALBERGEA
JATETXEA**
© 948 634179
ARANTZA

SALEZONES UDANA, S. L.

*Importaziozko leben kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatuak, erabiltzeko prest*

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

MALERREKA

Ituren eta Zubietako udal aurrekontuak onartu dira

Bi herrietan kanposantua moldatzen egingen dute inbertsio handiena

titi-ttapa

Iñauteriak hasteko punttuan dauden honetan, Ituren eta Zubietako Herriko Etxeek aurrekontuak onartu dituzte. Iturengo Udalak 67.877.706 pezeta edo 407.953,23 euroko aurrekontua izanen du. Horretatik kasik 32 milioi pezeta inbertsioetan joanen dira. Lanik handiena kanposantua handitzea izanen da, guztira 13.634.998 pezeta edo 81.947,99 euroko aurrekontua baitu. Maite Apeztegia arkitektoak idatzi du proiektua eta 64 hilobi berri egingen dira, gaur egun duen kopurua bikoiztuz. Lan honetarako, Nafarroako Gobernuak 30.080 euroko (bortz milioi pezeta inguru) dirulaguntza ematea aurreikusi da. Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean, baina Iturengo Udalak gehiago izatea espero du. Izan ere, dirulaguntza hau hasieran egin zen 6 milioi pe-



ARTXIBOKOA

Iturengo Herriko Ostata –ezkerrean– moldatzeko 8 milioi pezetako inbertsioa egingen da.

zetako proiektuari dagokio.

Herriko Ostata moldatzeko 8 milioi pezetako (48.080,97 euro) inbertsioa egingen da eta mendiko lanetarako 10 milioi pezetako (60.101,21 euro).

Zubietako Udalak, berriz, 46.222.478 pezetako (277.802,69 euro) aurrekontua onartu du. Zubietan ere, kanposantua moldatzen iza-

nen dute inbertsiorik handiena, 4.867.045 pezeta edo 29.251,53 euro. Herrian lanak egiteko langabetuak kontratatatzeko 3.200.000 pezeta erabiliko dira, 19.233,39 euro eta mendiko lanak egiteko, berriz, 1.998.649 pezeta edo 12.012,12 euro. Nafarroako Gobernutik, 3.400.000 pezeta edo 20.434,41 euroko laguntza espero da kan-

posantua moldatzeko; 1.980.000 pezeta edo 11.900 euro langabetuak kontratatatzeko eta 804.477 pezeta (4.835 euro) mendi lanetarako. Zubierako Errota Nafarroako Museoen Sarean sartua dagoenez, urtero 1.500.000 pezeta edo 9.015,18 euroko laguntza emanen du Nafarroako Gobernuak mantenimendu gastuetarako.

Ibintzak antolatutako zozketaren irabazleak

Iban ISASI

Joan den urtarrilaren 5ean, Errege Bezerpera gauean, 50 lagun inguru hurbildu ziren Herriko Ostata urtero-urtero egiten den bazkarira. Honen ondotik, azken bi hilabeteetan Herriko Ostata eta Bereau janaridendan ikusgai zeuden zarea eta minikatea eta Aurtizko Ostata emandako afariak zozketatu ziren. Honako hauek izan ziren saritutako zenbakiak eta berejabeak:

- 2247, Sergio Iparagirre: zarea (TB, likoreak, bizikleta estatikoa, etab...).
- 2308, Pilar Mingedia: Musika minikatea.
- 3200, Josune Ibarra: Aurtizko Ostata bi afariak.

Aipatu behar, lehen agertzen diren komertzio eta ostatuze gain, Plazaenea hostalak, Ariztegi harategiak, Botikak, ilea-paindegia eta Altxunea Erretegiak ere opariak emanez lagundu dutela zozketa honetako zarea osatzen. Milesker guzietan eta zorionak!



102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

TXOTX

denboraldia zabalik

- Astegunetan, arratsaldeko 6,30etatik aurrera zabalik.
- Asteburuetan, eguerdian ere zabalik.
- 250 lagunendako lekua jarrita.
- 50 autorentzat parkina. Autobusak. Klimatizatuak.
- Sagardoa bertan egiten dugu, sagarra Irun, Hondarribia eta Zarautzik ekarriz.

DONEZTEBE Errege Kabaleta Egunean **eraztuna** galdu zen eliza atarian. Aurkitu duenari sari ona emanen zaio.

☎ 617 461649
☎ 948 451846

BERTIZ



KARMELE TOLOSA

Miren Bidegain, Fermina Almandoz eta Asuncion Telletxea saridunak, Javier Pina Merkatarien Elkarteko lehendakariarekin batera.

Saskiak eta erosketa bonoak banatu ditu Merkatarri Elkartek

Elizondo, Lesaka eta Sunbillara joan dira sariak

ttipi-ttapa

Bertizko Turismo Partzuergoko Merkatarri Elkartek zozketatutako hiru saskiak banatu ziren urtarilaren 10ean elkartearen bulegoan. Javier Pina, elkartearen presidenteak erosleen fidelotasuna azpimarratu zuen eta berri egokitu zitzaion sariak banatzea. 750 eu-

roko balioa duten hiru saski, baita 300 euroko hiru erosketa bono ere banatu ziren. Zaretoak saltoki guzietako produktuz beteak zeuden. Elizondoko Miren Bidegainek Esarte harategian jasotako 66.577 zenbakiarekin, Sunbillako Fermina Almandozek herriko estankorako hartutako 126.772

boletoarekin eta Lesakako Asuncion Telletxeak Legarran emandako 210.066 zenbakiarekin eskuratu zituzten sariak. Bertizen izan ziren hiruak eta aski guttora ageri ziren, noski.

Aurten zozketa ohi baino goizago egin da, merkatarriak eurora egokitzekeo duten lana errazteko.

EZKURRA

Lehertua zuen ur kanala moldatu du Iberdrolak

Baserrietako bideak moldatzeko 12 milioi pezetako proiektua

Peio ZESTAU

Orain dela egun batzuk, Ezkurrako terrenan Iberdrolak duen ur zentralera doan kanala lehertu zen. Kanaletik eskapatu zen urak kalte handiak egin zituen bere azpitik pasatzen ziren mendiko pistetan. Handik denbora gutxira, Iberdrola hasi da kalteak konpontzen eta pistak moldatu ditu. Horretarako, bertan dagoen materiala erabili du, eta Udalaren asmoa da materiala horren balioa eskatzea.

Baserrietako bideen proiektua egitear

Baserrietako bide batzuk arreglatzeko proiektua Antonio Suescun ingeniariak egingen du. Proiektu honen aurrekontua 12.000.000 pezeta (72.121,45 euro) da. Proiektu hau Nafarroako Gobernuaren Hirurteko plangintzan sartuta dagoela.

Baserritarren «Explotazio Lizentzia»

Nafarroako gobernua hasi da eskatzen baserritarrei azientak izateko lizentzia (licencia de actividad deitzen zaiona). Lizentzia hori gauzatzeko epea 2003ko udaberria arte da. Udalaren intentzioa, sindikaturen bateko pertsona bat ekarri eta baserritarrei bilera batera deitzea da. Dena den, hasi dira agertzen lehendabiziko kezak baserritarren partetik. Ia denek azientak dituzte bizi osoan eta orain proiektu bat egin behar dute lizentzi hori eskuratzeko. Pausu honetan, ez dakigu urte gutxi barru, baserritarrek komunera joateko lizentzia eskatu



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

ANTOJOS

boutique pre-mama

HAURDUN AL ZAUDE?

2x1

ORDAINDU BAT ETA ERAMAN BI (TAILAK: 38-54)

Arbelaiz Jauregia • Iglesia karrika 8
(Nafarroako Ibilbidearekin eskin egiten)
Tel.-Fax: 943 63 41 70 • IRUN

SUNBILLA



TTPI-TTAPA TB

Urtarrilaren 19an egin zen herriko etxe berriaren inaugurazio ofiziala. Aitzinetik, hilaren 13an herri-tarrei atek zabaltu zitzaizkien, udal bulegoak ikusteko. Ezkerreko argazkian, Jose Mari Hernandez-na alkatea bakoian. Eskuinean, udalak eskainitako hameketakoa.

Herriko etxe berriaren inaugurazioa larunbatean egin zen

Urtarrilaren 13an herritarrentzat atek zabaltu ziren

tti-pi-ttapa

Herriko etxe berriaren inaugurazio ofiziala larunbat honetan, urtarrilak 19, egin da. Horretarako, noski, udal ordezkariekin batera, Nafarroako Gobernu kontseilariak eta lana egin duen enpresako agintariak izan ziren inaugurazio ekitaldian.

Larunbateko ekitaldi ofizialaren aitzinetik, herriko etxearen atek ireki zituzten hilaren 13an, herritarrek nola gelditu den ikusi ahal izateko. Zinegotzi, alkate eta udal langileek zalantza guztiak argitu zituzten hurbildutakoei eta egoitzaren banaketa berria erakutsi zieten. Jende aunitz bildu zen ikustaldian eta denek egoitzaren edertasuna gorai-patu zuten. Urtea pasatu da jadanik udal-etxearen hasi zirenetik eta sunbildarrek

gogo handia zuten etxea nola moldatu zuten ikusteko. Egoitza bisitatu ondoren, udalak hameketak eskaini zien bisitari guzietan etxe-ko sabaian.

Pilotalekuarekin gorabeherak

Pilotalekua errentan emateko kontratua berazterteza erabaki du Udalak. Azken al-dian, sunbildarrek kexu dira pilotalekuaren garbitasun egoerarekin. Honela, albintekin batera ortegunero frontoia garbitu behar dela adierazi zaio ardura-dunari eta ez orain arte bezala, albintek bakarrik. Modu berean, frontoiko ardura-dunak hila-bete bateko oportetarako eskubidea duela adierazi du Udalak, eta «langileak ez zaiola inoiz ere oporteteko hori ukatu, frontoien ate-

an Eguberri hauetan lan-gileak paratu zuen ohar-rrak zioen bezala».

Frontoiko ardura-duna Sunbillatik abudo joan dela aditu da. Horregatik, Udalak hori baieztatzea edo ezeztatzea eskatu dio. Egia izatekotan, bertze ardura-dun bat bilatuko du Udalak.

Helikopteroa

Aitzineko ale batean aipatu genuen bezala,

larrialdietan helikopteroek lur hartzeko leku bat behar zela aipatu zen joan den urteko batzar batean. Jose Apeztegia errotonda ondoan duen lur eremuan pentsatu zen, eta berekin egon ondoren borondate ona erakutsi du. Udalak idatzi bat igorriko dio Jose Apeztegiari, larrialdi egoeratan helikopteroak lur hartzeko bertzerik ez dela erabiliko adieraziz.



ARTXIBOKOA

Aranoko udal-etxearen azpian dagoen taberna berri-ere enkantera aterako da, obrak bukatu ondoren.

ARANO

Kontzeju taberna enkantera aterako da lanen ondoren

Kontxi KLABER

Udal-etxearen azpian dago taberna, bertan ezagutu genituen Lino eta Xalome, urte pila ederra eman zuten tabernarekin. Garai hartan gazta eta laruzko alfonbrak ere saltzen zituzten. Adinean aurrerajo eta uztea erabaki zuten, orduan hartu zuen Aurorak, bost urte bertan eginik hau utzi eta Gure Ametsa taberna ireki zuen. Geroztik Esther egon da 17 urtez eta hilaren 6an itxi zen, legeak agintzen dituen hainbat obra egiteko.

Bada urte pare bat inguru Kontzeju taberna «etxe bizitzarekin» subastan atera zela baina ez zen bertara inor azaldu eta Estherek jarraitu du orain artean. Obrak egin ondoren berriz subastatzeko edo enkanterateko asmoa da. Ea orain arte bezalaxe, bertako norbait animatzen den.

GOIZUETA

Kezka herrian karreteraren arriskuarengatik

Ondorio larriak izaten ahal
zituzten istripuak gertatu dira

Esteban AROTZENA

Orain dela laupabost urte lan politak egin baldin baziren ere herritik Hernanira eta Leitzara-ko errepideetan, oraindik hasi berria den negu gogor honek garbi utzi ditu bide hauen ga-beziak.

Abenduko hormate-aren ondorioz inor ez hiltzea mirari bat izan da. Alde batetik, gatz gutxitan bota dutelako, eta bestetik, bazterreko babes edo «quitamiedos» gabeko puntu beltz asko dagoelako oraindik. Leku berean eta ia ordu berean bi kotxe ka-

rreteratik ateratzeak (bat urera eroriz eta bestea milimitroengatik goian geldituz), leku horren babes beharra erakusten du. Ea bada, paratzen duten zerbait larriagoa gertatu aurretik. Ia herrian bertan, Madalenako zubitik Errateta bitarte, babes funtzioa betetzen duen harritzko pareta honen beste urtez bi lekutan hautsita egoteak ere zerbait adierazten du, noski. Leku batzutan errepidera erortzen diren harriek ere, arazo larriak sortzen dituzte, Urraidoko lepotik Arranbide



ARTXIBOKOA

Hamazazpi urte bete ditu Umore Ona elkarteak eta hainbat ekitaldi antolatu dira herriko soziedadean. Urteko batzarra otsailaren 2an egingen da.

bitarteko zatian, esate baterako. Honi irtenbidea bilatzea ez dirudi hain zaila denik.

Errepide nagusi eta autopista berrien saretik kanpo gelditu denez gure herria, daukagun bide kaxkar hau hobetzen joateko Nafarroako Gobernuak urterotero diru pusketa bat erabili beharko lukeela

pentsatzen dugu goizuetarrok.

Umore Onaren urteko batzarra otsailaren 2an

Hamazazpi urte bete berriak dituen Umore Ona elkarteak otsailaren 2an ospatuko du aurtengo batzar nagusia. Arratsaldeko 6,30etarako lehendabi-

ziko deialdian eta 7etarako bigarrenan deituta daude bazkideak elkarte egoitzara. Urteroko gaiak izanen dira eztabaidatu eta bozkatu beharrekoak. Presidente berria ere batzar horretan hautatuko da, dagoeneko bi urte bete baititu karguan Juan Ramon Apezetxeak.

ARESO

Sastibeltzeko labaderoa konpontzea onartu du Udalak

Zortzi ixuriko teilatua moldatu eta zurezkoa egingo da

Juana Mari SAIZAR

Sastibeltzeko labaderoa konpontzea onartu zuen udalak azken batzarrean. Teilatua zortzi ixurikoa du eta konpondu nahi dute. INEM-etik hartutako langileekin egingen da eta egurrezkoa jarriko dute.

Hiru heriotz

Ohiko ospakizunekin hasi da urte hau, baina ez hain gogoko den

heriotzak astindu gaitu. Kontxi eta Esther galdu ditugu, eta ez da denbora asko Joxe Mari johan zitzaila. Jaiotzarik ez genuen izan iaz, ea herria mantentzeko aurtengoan zein animatzen den!

Larreko bordako pinudia

Larreko bordako pinudia ateratzeko deialdia ilbeltzaren 31 arte

irekia dago. Nafarroako Gobernuak 46 milioi pezetan baloratu du.

Botikina jarriko da herriko etxe biltegian

Azken udal batzarrean, herriko etxe azpian udalak duen lokala desafektatzea onartu du. Orain arte biltegi bezala erabiltzen zen eta hemendik aurrera botikina jarriko da. Bes-



ARTXIBOKOA

Herriko etxe biltegian botikina jarriko da.

talde, Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean bi baserrietako pistak moldatzea onartu da. Zehazki, Felipeborda eta Iruñegiko bideak moldatuko dira.

**GOIZUETA
HUIZI JATETXEA**
alokatzen da bere
etxebizitzarekin.

☎ 948 514122 • GOIZUETA

SUNBILLAko Inauteriak

Karrozak eta mozorroak



Azken urteotako ohiturari eutsiz, emakumeen afariarekin hasiko dira Sunbillako Iñauteriak. Larunbatean, baserriz baseri puxka biltzen ibiliko dira eta igandean izanen da urtetik urtera arrakasta gehiago duen karroza desfilea.

Edurne Zubieta

E ratsunen eta Orabi-dean lehen

agerpena egin ondotik, aste hondar hone-tan iñauteriek segida izanen dute Sunbi-llan, Iturenen, Zubie-tan, Leitzan... eta on-dotik etorriko dira bertze herri aunitzeta-koak ere. Sunbillan emakumeen afariare-kin hasiko dira.

Bertako nahiz bisitari, lotsak alde batera utzi eta ongi-ongi pasa iñauteriak.

ILEA PRINDEGIA



"ARTAZI"

Ongi pasa iñauterietan!

Ezkontza, bataio
eta jaunartzetan banatzeko opariak

Gindal ibiltokia, 3 1.D
Tfnoa: 948 45 08 44 • SUNBILLA



GAZTANDEGIA

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

MARISOL
JANARIDENDA

Karrika Nagusia, 7 - Tfnoa: 948 45 06 08 - SUNBILLA

FONDA

o s t a t u a

Donibane karrika
Tfnoa: 948 45 01 80
SUNBILLA

DISFRACES LA MASCARA



- ✂ Iñauterietako mozorroetan den-dena daukagu
- ✂ Era guzietako esagarrien alekairua eta salmenta
- ✂ Festen prestakuntza
- ✂ Makilari profesionalak...

Bazar denda: Abejeras, 6 • Tfnoa: 25 00 04 • Faxe: 25 00 04 • 31007 IRUÑEA

IRURIBIETA

OSTATU - JATETXEA

Iruri-Iruña bidea, 61,5. Kma
☎ 948 45 03 99 • SUNBILLA



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Amezia karrika • DONEZTEBE
Tfnoc: 948 45 03 06

ITTURBURU

OSTATUA

- Pintxoak
- Bokatak
- Plater konbinatuak

Karrika Nagusia 23 • ☎ 948 451703 • SUNBILLA



Estazio karrika 13 (bi zubien artean) • HENDAIA
Tel.: 00.33.0559.48.37.58



- Mozorroren alokairu eta salmenta
- Baserritarren jantzien aukera zabala
- Mozorro guzietako osagarriak
- Makilak profesionalak
- Piroteknia artikulak (/petardo, su-ziriak...)

Prezio ezin hobeak



Sunbillako Ino

gande hone-
tan, azken
urteotako
iñauteriek
izan duten
arrakasta
ikusita, berriz ere jen-
de pila bat bilduko da
Sunbillako karrike-
tan. Ikusleek, gaine-
ra, hotzari aurre egi-
teko pintxoren bat eta
salda bero pixko bat
jan-edateko aukera
izanen dute, sunbil-
darrek horretarako es-
pres egiten baitute ka-
rroza bat.

Igandea iñauterie-
tako azken eguna da
Sunbillan. Aitzinetik
ere aski asteburu mu-
gitua izaten dute sun-
bildarrek, ortziral
goiz-goizetik hasita:

Ostiralean, puxka biltzea eta emakume afaria

Ortziral goizeko
9etan abiatuko dira
iñauteriak, Itturburu
ostatuan abiatu ere.
Hantxe bilduko dira
gazteak gosari ederra
egiteko. Ondotik, ba-
serrietara joanen dira
urteroko eskea egite-
ra, Modesto eta Joxe
Angel akordeo-
lariekin.
Etxe gu-
zie-

tan ederki hartuko di-
tuzte eskean etorrita-
koak, dudarik ez, bai-
nan bereziki Istolan
eta Ezkeneko bordan.
Izan ere, eguerdiko
2etan bazkaria egingen
dute bi baserri haue-
tan.

Arratsaldeko 5etan
txokolatada bat iza-
nen da Ulibeltzak el-
kartean haurrentzat,
eta arratseko 8etan
Mikel Salaberri mu-
sikariaren eskutik



dantzan hasteko auke-
ra izanen dute zahar
eta gazteek.

Arratseko 10,30ak
aldera, gazteek Bus-
titz ostatuan afalduko
dute, eta

emakumeek berriz,
Ulibeltzak elkarte-
an. 8etatik 10etara musi-
ka arkupetan Mikel
Salaberriren es-
k u t i k .
Salaberrik lan

aunitz
egin
be-



Auterriak 2002



Pizza banatzaileak, Alarde Mixtoa (emakumeak eskopeta-rekin eta gizase-meak kantinera) eta bertze hainbat mozorro ikusi dira azken urteetan Sunbillako Iñautetan.

harko du larunbat arratsean, emakumeen afalaondoa ere bere musika doinuekin alaituko baitu.

Sunbillako iñauterriak oso-osorik bizi

nahi dituenak ez du atsedenerako asti handirik izanen. Larunbatean gazteak goizeko 9etarako Iruribietan bilduko dira gosaltzeko, eta ondotik herrian barna aterako dira eskean, Mikel Salaberri eta Modetorekin. Eguerdian Fondan bazkalduko dute, eta arratsaldeko 8,30etan mozorroen dantzaldia izanen da arkupetan Modesto eta Mikel Salaberriekin. Arratsean Elor-Txuri jatetxean afalduko dute.

Aitzineko bi egunetan bezalaxe, goizeko 9etan gosaltzeko bilduko dira sunbildarrak, koadrila baikoitza bere txokoan. Herria bisitariz beteko da laster, eta karrozak hartuta herrian barna desfilean ibiliko dira. Aitzineko hilabeteetan egindako lana erakusteko ordua da, karroza horiek ez baitira egun batetik bertzerera prestatzen. Eguerdiko 11,30etan abiatuko da desfilea. Gero, Ulibelrzak elkartean herri bazkaria egingen da.

Bazkalondoa Jalisko Band taldearen musika izanen dute giroa alaitu eta iñauterriak ongi akautzeko.



GAZMENDI eraikuntzak

Etxe berritzeak, saneamenduak, nabe industrialak...

DONIBANE KARRIKA • GURE BORDA
SUNBILLA

Maria Jesus

HARATEGIA Bertako haragia

Karrika Nagusia, 11
Tfnoa: 948 45 15 30
SUNBILLA

IBARBURU ERRETEGIA



Brasan egindako arrain eta haragietan espezializatua

Aupa Sunbillako iñauterriak!

Iruña-Irun errep, 59.km • © 948 45 17 62
DONEZTEBE



Ituren, Zubieteta eta Aurtizko Iñauteriak

Joaldunak lanean hasteko prest

Beti bezala, ortzegunetan, urtarrilaren

24an joaldunek eginen duten lehen puxka biltze eta afariarekin hasiko dira Iñauteak Aurtiz, Ituren eta Zubietan aldean. Larunbatean izanen dute segida, afaria eta dantzaldia egiten baita egun horretan.

Igandean, jantzi osoa paratuz, lehen ibilaldia eginen dute joaldunek herriko karraketan barna.

Astelehenean, urtarrilaren 28an, moztorro eta karrozek lagunduta zubietarrek eta aurtiztarrek bisita eginen diete Iturengoei. Lasagako Zaraindia parean, Aurtiztik heldu den bidetik agertuko dira, eta joaldun guziek batera, herriari buelta emanen diote.

Asteartean, urtarrilaren 29an, Iturengo hiru auzoetako joaldunek bisita bueltatuko diete zubietarrei, urtero-urtero, batzuen ustez natura ernatzeko eta uzta berri eta ugariak emateko egiten den ohiturari eutsiz.

Asteazkenalasaia goa izaten da, bakoitza bere herrian gelditzen baita, eta bazkari eta afarien arte-



Urtero bezala, joaldunen joan-etorriek iñauteri giroa hedatuko dute Aurtiz, Ituren eta Zubietan.
Foto Mena

an besta egiteko eta azkeneko gau eta egun luzeetan gerta-

tutakoen balantzea egiteko erabiltzen dena.

Kontuen eguna izaten da Iñauteetako azkena, otsailaren 2an

izanen dena. Egun horretan ez da joaririk jotzen, bertsolariak eta aizkora apostua izaten da, eta ondorik, bazkaria eta kontuak.

Bazkal ondotik dantzaldia izaten da eta, moztorra izugarria ez bada, bestarekin segitzeko aukera dago, afari eta dantzaldian.

Iturengo Iñauterietan aurtien akordeolari lanetan ariko direnak Kristian arbontarra, Doneztebeko Mikel eta Aurtizko eta Zubietako Triki-dantz taldea izanen dira. Joxe Angel izanen da musika doinuak paratuko dituen Aurtizko soziedadean.



ERRANDONEA

O S T A T U A

Iñauterietan giro paregabea

© 948 450216 - ZUBIETA

ALTUENA ERRETEGIA

ITUREN

Ortiziral gauetz, larunbat eta igandetan irekia
Besta egunetan eta bezperetan irekia

Iñauterietan egunero zabalik

© 948 450410 • Ituren

AURTIZKO OSTATUA

Taldea logotipoa

Berezitasunak:
Arrain eta mariskoak parrillan

LEITZA

Aurten ere ihoteak

Larunbat honetan hasi eta asteartera arte izanen dira

Mikel ILLARREGI

Larunbat honetan hasita astearte bitartean aspaldiko usadioari jarraituz ihoteaz goza dezakegu aurten ere.

Egitarauari dagokionez, ilbeltzaren 26an, larunbata, 15:30etan eskea herrian, Aurreratik hasita. Ondoren atsaldekoa. 18:00etan Leitzeta eta Goizuetaren arteko pilota partidoak.

Igande eguerdian, txarangarekin batera karrerozen desfilea aterako da, industriadetik hasita. 14:30etan «atsoguratu bazkaria». Arratsaldean kalejira egingen da berriro eta umeentzat trena herrian barna. Arratsaldean eta gauez, Ainara eta Arkaitz trikitilarien emeraldia plazan.

Astelehenean, ilbeltzak 28, 9:00etan Au-



GLORIAK UTZIA

1932. urtean ateratako argazkia. Leitzan ihoteak aspaldidanik ospatzen zirela jakin bagenekien. Pentsatzen ez genuena garai hartan ere norbait bazela argazkiak ateratzen... ea nor ezagutzen duzuen!

rreratik atera eta Sakulu, Erreka, Arkixkil eta Gorritzaren auzoetan eskea egingen da musikarien laguntzaz. Ondoren, ailegatzera, merendu-aparie.

16:00etan umeentzat «euskal jokoak» Kulki taldearen eskutik. Arratsaldean eta gauez Xapo musika taldea plazan.

Astearte goizean Erasote auzoan egingen da eskea. 11:30etan txaranga izanen da eskolan. 15:00etan Aurreran bazkaria eta eskolako ikasleen desfilea plazaa. Ondoren txokolata. Ihoteak bukatzeko, dantzaldia izanen da

plazan Gaubela musikari taldearekin.

Etxeak zaharberritzeko 25 eskaera

Leitzaldeko etxeak zaharberritzerko eskaeren iazko balantzea egitearakoan jakin dugu, 61 eskaeretatik Leitzan 25 onartu direla. Dakizue, zerbitzu honek hamabost urte baino gehiago duten etxeetako obrak babesten du, egin beharreko obra 4.000 eurotik (665.544 pezeta) gorakoa bada. Guztira, 69.912,5 euro (11.632.463 pezeta) dirulaguntza moduan eta

baldintza onetan emandako mailegua 115.787 euro (19.265.412 peze- ta).

Liburutegian txikizioak

Ilbeltzaren 4an, liburutegi aurreko patioan pertsiana bat, zakarrontzi pare bat eta argi mordoxka hautsi dituzte. Lehendik ere horrelakoak, nahiz eta hainbestekoak ez izan, gertatu izan dira eta liburuzainaren ustetan, gaia ongi aztertzen ez bada, hurrengo batean txikizio handiagoak gerta daitezke, batez ere barrura sartzen badira.

FLASH

Osasun Etxean pintura

Osasunbideak 114.522 eurotako dirulaguntza (19 milioi pezeta) onartu du Nafarroako hainbat Osasun Etxe hobetzeko. Leitzakoari dagokionez, 29.483 euro (4,9 milioi pezeta) inbertitu ditu berri ere margo- tze lanak egiteko.

Olioia soberan

Urte honen hasieran, Leitzan olio erabilia bil- tzen duen Ecogras en- presak 2001. urtean ja- sotako olio kopurua eta zerbitzu honen erabi- tzaileen kopurua argi- taratu du udalari eman- dako informe batez. Zer- bitzu hau martxoan ha- si zen, beraz hamar hi- labete dira guzira. haue- tan, etxeetatik 877 per- sonek 1.075 litro era- man dute. Gehien bildu diren hilabeteak maia- tza eta azaroa dira, ba- koitzean 150 litro. Jan- tokitan ere bildu dute, hauek jatetxeak (7 gu- zira), tabernak (2), es- kola (1), lantegia (1) eta elkarte gastronomikoa (1) dira. Hauen artean 3.115 litro bildu dituzte.

Akatsa zuzendu

Azken ttipi-ttaparen aza- lean, Asier Arzallus ki- rolariaren izena jarri or- dez Unai Arzallus jarri genuen. Barkamenak.

GAZTANAGA TABERNA

BOKATAK eta PINTXOAK

Pizza Krugikoke bertan jan edo etxera eramateko

Elbarren, 55 ☎ 948 610708 • LEITZA

ARAKINDEGIA JATETXEA

- Menua eta karta
- Garaien garaiko otorduak

Elbarren 42 • ☎ 948 510052 • LEITZA



TABERNA

- OGi EGIN BERRI-BERRIAREKIN EGINDAKO OTARTEKOAK
- KAXUELAK
- ERA ASKOTAKO PINTXOAK (Rabak, olagarroa, ziztorra...)

Elbarren, 16 ☎ 948 610864 • LEITZA



MUSUNZAR
Logelak • Ostalua • Taberna

☎ 948 510607-948 510475
Elbarren 14 • LEITZA

BAZTAN

Lekarozko sagardotegian kupelak ireki dituzte pasa den larunbatean

Denboraldi hasieran sagardoa gozoagoa izanen da

Rakel Goñi

Lekarozko Larralde sagardotegian pasa den larunbatean ateak ireki zituzten. Denetara 40.000 litro produzitu dituzte, horietatik 7.000 inguru sagardotegian edanen dira, eta gai-nontzekoak botilatuko dituzte. Lehenengo egu-netako sagardoa gozoa izanen da oraindik bere puntuan egoteko denbora pixka bat falta delako. Dena den egunak pasa ahala bere zapo aski ezaguna hartzen joanen da. Lekarozko sagardotegian bertako sagarrak erabiltzen dituzte.

Produkzio ekologikoa

Sagar ekologikoak dira Larraldekoak, inolako gehigarri kimikorik gabe. Uzta ohi baino urriagoa izan denez, kanpoko sagarra ekarri behar izan dute produkzioa osatzeko. «Urte guztiak ez dira berdin izaten, aurtun loratzerakoan izan dira arazo batzuk eta ohi baino guttiago bildu dugu» aipatzen du Goio Elizetxek, sagardotegiko arduradunak. Halere, kontent dira atera den sagardoarekin.



RAKEL GOÑI

Lekarozko Larralde sagardotegiko Goio Elizetxe kupeletatik aurtengo uztarekin agindako sagardoa ateratzen.

Jatorrizko izendapena

Jatorrizko izendapen ofiziala lortu nahi dute Nafarroan dauden bospasei sagardo produktoreek. Izendapen horri «Dolarea» izena jarzea erabaki dute, in-

gurutako etxeetan sagardoa egiten zen auintzetan izen hori ematen zitzaielako.

Martxoaren hondarra arte, asteburuero izanen da Lekarozko sagardoa dastatzeko aukera txuletoi baten laguntzarekin.

Errepide bazterreko platanoak

Obra Publikoen departamenduko, errepideen zainketarako zerbitzuak, Baztango Udaleri proposamen bat bidali dio. Iruritatik Elizondoraino doan errepide tartean, platano zuhaitz guztiak moztea hain zuzen ere, sustraiek sortzen dituzten arriskuak desagertzeko. Abenduaren 26an izandako batzarraren gai honen inguruko erabakia hartu zen: Nafarroako Gobernari eskatuz, ahalik eta lasterren, Arraioz eta Elizondo arteko errepide berriaren diseinua egin dezan, gaiaz iritzia eman ahal izateko.

FLASH

Traktoreen ITVa pasatzeko datak

Urtarrilak 23 Amaiur
Urtarrilak 24 Erratzu
Urtarrilak 28 Arizkun
Urtarrilak 29 Elizondo
Urtarrilak 30 Lekaroz
Otsailak 4 Gartzain
Otsailak 5 Arraioz
Otsailak 6 Ziga
Otsailak 7 Berroeta
Otsailak 8 Almandoz
Otsailak 12 Orabidea
Otsailak 13 Oronoz
Reihnländ enpresa herriz herri joanen da traktoreen egoera ikusirik ITVa pasatua duten ziurtagiria emateko. 24,04 euro (4.000 pezeta) ordaindu beharko dira re-bisioarengatik. Goizeko bederatzietatik eguerdirarte, ohiko tokietan.

Baztango Mendigoizaleak

Urtarrilaren 27an Mendaurrea egiten dute irteera Mendigoizaleak. Otsailaren 3an Hirubelakaskoara joanen dira. Ohiko tokietan kartelak izanen dira irteera orduak eta lekuak zehazteko.

INAUTEEN EGUTEGIA

Ornoz	Urtarrilak 24. 25, 26
Aniz	Urtarrilak 25, 26
Berroeta	Urtarrilak 25, 26
Ziga	Otsailak 1, 2, 3
Azpilkueta	Otsailak 1,2
Almandoz	Otsailak 8.9
Gartzain(?), Lekaroz	Otsailak 8.9
Irurita eta Amaiur	Otsailak 8, 9, 10
Elbete	Otsailak 9
Elizondo	Otsailak 9, 10, 11

*Eskisaroi
jatetxea*
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ARROPA DENDA
FARTAKE
Gazteendako
era guzietako
arropa
Lanerako arropa

BURKAITZEA
ostatu
erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
☎ 948 599280 • URDAZUBI

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

Orakunde edo oilardantza izenaz ere ezagutzen da eguna

Rakel Goñi

Ortzegun gizona, Egun Ttun-Ttun, orakunde eta oilardantza dira bertzeren artean haurren egunak Baztannen hartzen dituen izenak. Aspaldi ortzegunarekin ospatzen zen herri guzietan, baina duela urte batzuetatik honatzenbait herrik datu aldatu dute txistularien faltagatik. Horrela, bada, lehenak zigatarak izanen dira otsailaren 3an ospatuko baitute orakunde. Otsailaren 5ean, asteartea, Amaiurren. Lekarozen eta Erratzun otsailaren 6an, asteazkena. Ortzegun Gizenean, otsailaren 7an Arizkun, Elbete, Elizondo, Iurita, Gartzain, Almandoz, Oronoz eta Arraiozen. Eta azken orakunde eguna Anizen eta Berroetan ospatuko da otsailaren 9an, larunbatarekin. Ohiturak herritz herri aldatzen badira ere, oilarra izanen da protagonista herri guzietan.



Aspaldiko partez laster loteria saltoki berria izanen da Elizondon. Sobrino ostatuaren zati bat itxi dute bulegoa bertan egiteko eta Otsailaren bukeran irekia egotea espero dute. «Loterias Baztan» izena jarriko diote bulegoari eta Ma^a Jesus Sobrino Marizko izanen da arduraduna

Pasa den igandean Nafarroako Bertsoszaleen Elkarteak omenaldi hunkigarria eskaini zien Roman Mihura, Juanito Peñuren eta Felix Iriarte bertsolariei. Eguna has-teko meza izan zen Elizondoko Santiago parrokian, ondotik Nafarroako Bertsozale Elkarteak urteko Batzar nagusia egin zuen. 14:00etan Bazkaria izan zen Antxitonea Trin-ketean. Ekitaldirik nagusia, omenaldia bera, trinketean bertan egin zen. Mikel Altzuartek bertsokak jarri zizkien omenduei musikari bat-ten laguntzarekin. On-dotik, Baztango ikaste-txetako haurrak aritu zi-ren bertsoka. Ondotik oroigarri bana, plaka bat eman zitzaizen omenduei eta hauek hitz batzuk zuzendu zizkieten han bildutakoei. Eguna akitzeko Elizagoien, Aroze-na, Lazkano eta Agirre-ren bertsokak izan ziren.

Korrikalari arraioztarrak Nafarroako kopako hiru-
garren proba irabazi
zuen Valtierra. Urta-
riaren 13an izan zen las-
terketa eta egun bere-
an Mihurak Nafarroako
Taldekako Txapelketa
irabazi zuen Hiru Herri-
rekin. Otsailaren 10ean
azkeneko proba izanen
du Mihurak Tuteran. Se-
guruenik egun hartan
Nafarroako Kopa berak
jasako du, dagoeneko
4 probetatik hiru iraba-
zi dituelako.

Baztango Udalak Iruritako Dorrea jauregia 132.222,6 eurotan (22 milioi pezeta) erosi du. Hurrengo pausua etxea moldatzeko proiektuak aurkezte da, etorkizunean jauregia, erabilera anitzeko egoitza izateko egokitzeko. Moldaketa lanak egiteko Udalak Bianako Printzea instituzioaren eta Gobernuaren laguntzak lortzea espero du.

Baztango Udalak Berrromaldan, lur komunean, oihan berritzea egiteko 28.725.061 peze-ta, 172.641,09 €, onartu ditu.



ONASKA
ERRETEGIA

Euskal sukaldaritzaz
 Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • **ELBETE**

☎ 948 45 20 88

SENPERE



STUDIO DE LA NIVELLE

Nemery jaun-andreak urrezko ezteiak ospatu zituzten abenduaren 29an.



STUDIO DE LA NIVELLE

Auzapez anderearen urte berriko agiantza ematean, Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusi Bernard Auroyekin omenaldia egin zitzaion Ezponda jaun-andreari.

Sortzez herritarra zen Manuel Sein «Xanpun» bertsolaria zendu zaigu

Xalbador jainko ttikitizat zuen Xanpunek

Franck DOLOSOR

Xalbador eta Mattinekin bertsolari haundienetarik izan ginuen Xanpun gan den urtarilaren 14an zendu zen bihotzekoa jasan ondoren Donibane-Lohitzunen. Manuel Seinek 73 urte bete berri zituen abendoaren 28an. Senperen sortua 1928an, Urruñako "Xanpun-baita" baserrian eta Donibanen bizi izan zen luzaz. Bere amaxiren ber-sozaletasunak pusatu-

rik, hamazazpi urterekin hasi zen kantatzen eta geroztik plazaz plaza ibili zen ehundaka bertso saio eskainiz Euskal-Herri osoan. Xalbador eta Mattin hil ondoren, Ahetzeko Txomin Ezponda izan zuen lagunik haundienetarik Xanpunek. 1980an Euskal-Herriko bertso txapelketako finalerat ailegaturik, omenaldi andana egin izan zitzaion: Donostian 1983an Bertsolarien Egunaren ka-

rietarat, Oñatin hiru urte berantago eta azkena duela sei urte orain Donibane-Lohitzunen.

Antzerkian ere ibilia, ofizioz laborari, mariñel eta itsaskien hazkuntza lantegi batetako buru egon zen. Euskaltzale sutsua izaki Korrikan parte hartzeko usaia bazuen eta duela hiru urte Donibanen lekukoa eraman zuen atsegin haundiz lasterka ibiltzea ikusgarria baita bere erranetan eta horren be-



GARA

Manuel Sein «Xanpun»

harra baduelakotz eskuarak.

FLASH

Iparraldea ETBn

Astelehenetik ortziralerat Lapurdi, Baxe-nafarroa eta Xiberoko berriak eskaintzen hasi da ETB1 eskuarazko telebista 20H20etan 'Gaur-egun' albistegiaren aintzinetik.

Euskal dantzak

Zirikolatz taldearen eskutik helduen dantza ikastaroak hasi zirengan den urtarilaren 17an mutxikoak, lantzeko ihauteiak eta axuri ikasteko. Xehetasunak: 05.59.54.50.13; 05.59.54.53.13.

Ehun lagun Cybergunean

Abenduan herriko internetguneak urtea bete zuen sortu zenetik. Gaur, ehun lagun biltzen ditu eta langile bat ere badu Patrick Sorondo. Aranategiaren gibelean den Cyberguneak ateak irekitzen ditu astelehen, asteazken eta ortziralerat 10ak eta eguerdi artean eta arratsalde oroz 2.30ak eta 6.30ak artean.

5518 euro Teletonaren alde

Aurten iaz baino 1524 euro gehiago bildu ziren Inarrean baserrian ospatu zen bestaren kari.

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritzak
Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
☎ 948 631209



ANTXITONEA Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
☎ 948 581807 • 948 581853

Alberto
RETEGI
abokatua

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763

SARA

Internet zerbitzua herritar denentzat urririk eskainiko da liburutegian

Ezezagun batzuk auto eta motoekin sartu ziren kiroldegian, desmasiak eginez

Aña Mari eta Fred

Herritar guziak liburutegiko atea idekiak dituzte Internet erabiltzen ikasi nahi baldin badute edo informazioa xekatzeko. Bertalde, ordengailu bat bada, Word eta Works programekin, edozoinak eskutitz edo bertze egiteko. Animateaile talde bat egoten da asteazken eta larunbat goizetan, 10etatik eguerdiarte eta larunbat arratsaldetan, 4etatik 6ak arte. Xehetasun gehiagorentzat deitu 0559475304.

Basurdeek galdu egin zuten Urruñan

Errugbi denboraldiak aitzina segitzen du Sarako Izararentzat. Taldeak urtea ezin hobeki hasi baldin bazuen ere, Goes-i 53 eta 3 airez aire irabaziz, joan den urtarilaren 13ko norgehiagoka borrokatuago izan da eta gure basurdeek 10 eta 6 galdu behar izan dute Urruñan. Txapelketaren lehen faseko azken partida jokatu beharra zen 20an Animaniako zelaietan, Kanboko taldearen aurka. Ondotik, eta saillapenaren arabera,



Ardi primen galdatzeko garaia etorri da. Galdera, usaian bezala, D.D.A.F-ari egin behar zaio urtarilaren 31a aitzin. Behar diren baldintza guztiak betetzen dituzten abeltzainek 16,8 euroko laguntza eskuratu dute buru bakotz.

bigarren fasea hasiko da, klubak antolatu usaiaiko mus txapelketaren ondotik.

Herriko Etxeko Edantegiko mus txapelketa

Herriko Etxeko Edantegiko mus txapelketa otsailaren 8an, ortzira-



larekin, arratseko 9etan hasiko da. Hilabete huren 31 arte izenak ematen ahal dira ostatura jonez edo 0559542519 telefonoradeituz. Aurtan, parte hartzaile bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

Lehiaketak lau aste iraunen du eta jadanik

finalen eguna finkatua da. Martxoaren 9an, larunbatarekin, bururatu dute. Bertalde, Frantziako mus txapelketaren kanporaketak otsailaren lehenean finituko dira eta ostatuan aritu diren 15 ekipetatik bik segituko dute lehiaketan.

Musean gelditu gabe

Larunbat huntan, urtarilaren 26a, arratsaldetako 2etatik goiti Sarako Izarra errugbi elkar-teak bere seigarren mus txapelketa antolatzen du Omordian. Txapelketa hau denentzat idekia da eta egunean berean 16 euroren truke afaltzen ahalko da. Parte hartzaileek 0559542775 telefono zenbakira deitu behar dute. Urtero bezala, azken muslariak goiz aldera bukatuko dute lehiaketa; dena den lehenago kanporatuak izanen direnak denbora pasatzeko manera izanen dute antolatuko den ostatuan.

Desmasiak egin zituzten kiroldegian

Joan den urte bukeran, ezezagun batzuek auto eta motoekin sartu dira herriko kiroldegian, desmasia deitoragarriak eginez. Horrela, eserleku batzuek ondatuak izan dira, eta bernezko botoilak atxemanak izan dira bertan.

Gertakari horren ondorioz, Herriko Etxeko kiroldegia gauez atxikitzeo erabakia hartu du.

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

SAROBÉ
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

ZUGARRAMURDI

Egun bat gutiago izanen dute aurten ñauteriek

Gizasemeendako ileapaindegia berria ireki da

Margari eta Koro

Eguberri ondotik laister inauteriak ditugu eta aurten aldaketa nabarmena izanen dute: aitzineko urteetan jendearen erantzuna kaxkarra ikusiz, asteartean inauterik ez ospatzea erabaki dute gazteek. Beraz eskea horrela geldituko da: igande goizean herria eta arratsaldean bentak; astelehen goizean mendia eta arratsaldean Alkerdi. Aldaketa honekin herriarren astearteko afaria kanpo gelditzen de-

nez, astelehenera pasatzea pentsatu da, horretarako nahikoa da Azketan edo Palazioan izena ematea.

Mendi ibilaldiak egutegirik gabe

Urtea aintzina doa eta mendizaleen elkarrekin oraindik urteko ibilaldien zerrenda ateratzen dute. Urtarrileko ibilaldia San Anton bestearekin batera zela eta Lesakako auzo horretara gata errex erabakitzeko, bainan hurrengo TTPI-TTAPAN faltarik ga-

be zerrenda agertuko dela hitza emana dute mendizaleek.

Gizasemeendako ileapaindegia berria

Urtarrilaren 7ean gizonetako ileapaindegia berri bat ireki zen herrian, orain arte emakumezkoen ileapaindegia eta baita estetizien aretoak kokatuak diren toki berean, Martinea etxean hain xuxen. Egunean arratsaldean eta larunbatetan goiz eta arratsaldean irekita dago.



Urtarrilaren 10ean Beñat Zozia Ertanda taldeko kidea Zugarramurdiko eskolara etorri eta haur hezkuntzako lehen zikloko ikasleekin egona da. Beñatek baxua jotzen du eta bere musika tresnarekin agertu zen. Haurrak lorietan egon ziren berari galderak egiten eta kitarra nola jotzen zen ikasten. "Ertanda"k jarraitzaile gehiago egin ditu.

URDAZUBI

Aurten ere hainbat ekitaldi antolatuko ditu Ugarana emakume taldeak

Joan den urtea, Santa Luzia eguneko bazkariarekin akitu zuen

ttipi-ttapa

Urdazubiko berrogei bat emakume biltzen dituen Ugarana elkarteak, Santa Luzia eguneko bazkariarekin akitu zituen joan den urteko ekitaldiak. Urtean egingako lanen berri emateaz gain, elgarrekin egoteko modu polita hautatu zuten, beraz, Ugaranako emakume-

ek. Gan den urtean josteko ikastaroa egin zuten hamahiru emakumek, Nastasi Bidart-en erranetara. Horretaz gain, Alaitz Kolektiboko sikologo batek emandako memoria berreskuratzeko ikastaroan ere hamabi emakumek hartu zuen parte. Ekitaldi hauek gauzatzeko 250.000 pezetako diru-



RAKEL GOÑI

Santa Luzia jostunen eguna aprobetxatuz, bazkari batean bildu ziren Urdazubiko Ugarana emakumeen elkarteak.

laguntza jaso zuten Nafarroako Gobernutik.

Nastasi Bidart, jostungintza irakaslea izateaz gain, Ugarana elkartearen lehendakaria da. Bere ustez, «aurten

ere Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen ikastaro eta dirulaguntzen arabera zerbait berria egin nahi dugu». Gan den urtean egin zuten bezala, Emakume-

en Egunean sagardotegi batera ateratzeko asmoa dute, «baina bilkura batean erabakiko dugu». Bien bitartean, yoga eta josteko ikastaroekin segitzen dute.

AZPIEGITURAK

Igantzi eta Berako saihesbidearen arteko tartea moldatuko da

Nafarroako Gobernuak urtarrila haseran onartu du proiektua egitea

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak udalez gaineko eragina duen proiektu sektoriala izendatu du N-121-A errepidearen moldaketa eta egokitze lana, Igantziko Bentatik Berako saihesbidera doan tartean. Nafarroako Errepideen Zuzendaritza Planaren barrenean sartua du Gobernuak ekinbide hau.

N-121-A errepidearen zati honek dituen 9 kilometroak bortz zatitan banatu dituzte, moldaketak aitzinera eraman ahalizateko; Arantzeta eta Igantziko sarre-rak; Etxalar eta Lesakako sarrerak eta, azkenik, Berako saihesbidearen hasiera. Kontrataren aurrekontua 20,38 milioi eurokoa da, 3.390 bat milioi pezetakoa. Noski, errepide honen moldaketa geroz eta handiagoa den ibilgailu trafikoaren mesedera-ko izanen da.

Antzeman daitekeen bezala, hainbertze zer erran eman duen Igan-



ARTXIBOKOA

Beratik Endarlatsa arteko zatia moldatzeko urteak pasatuko dira oraindik.

tzi-Behobia errepide zatiaren moldaketak gauzatuak ikusteko urte an-dana pasatuko da. Urtarrilaren 10ean, Antton Jaime Gipuzkoako errepide diputatuak Endarlatsa eta Behobia arteko zatia moldatuko zue-

la erran zien Bortzirietako alkateei, beti ere lehenik Nafarroako Gobernuak Bera eta Endarlatsa arteko errepide-a moldatzen badu; eta momentuz gobernuak ez du deus aipatu azken zati honen inguruan.

Dena den, Gipuzkoako tar-teak ere guttienez 2005. urteko planera bi-tarte esperatu beharko luke. Bortzirietako alka-teak ez ziren gustora ateri bileratik, eta mobi-lizazioak egitea ere ez dute baztertzen.

Labaiengo kanposantua handitzeko handitzeko lanak

ttipi-ttapa

Beintza-Labaiengo Udalak, Labaiengo kanposantua handitzeko eta moldatzeko lanak lehiaketa bitartez emanen ditu. Herriko Etxean aurkezten diren proposamenak 14.884.041 pezetatik —edo 89.455 euro— beheitikoak izan behar dute (BEZa barne) eta otsailaren 4a baino lehen egon beharko dute udal bulegoetan. Proposamenak bihamonean zabalduko dira, goizeko 10etan.

Bertze aldetik, urhornidurarengatik ordaintzen diren tasak arautzen dituen ordenantza behin betikoz onartu du Beintza-Labaiengo Udalak. Ura- ren erabilera edozein dela ere, kontsumitu-tako metro kubiko ba-koitzagatik 0,10 euro edo 17 pezeta ordainduko dira. Kontadore-aren alokairua 12,02 euro edo 2.000 peze-takoa izanen da eta ur-hartzea 90,15 eurotan (15.000 pta) finkatu da.

MELOMANIA

gizonezkoen
ileapaindegia

Astelehenetik
ortziraler
arratsaldez idekia

Larunbatetan
goiz-arratsaldez
Ez da tenorerik
hartu behar

© 948 599105 • Martinea
ZUGARRAMURDI



LARRALDEA SAGARDOTEGIA

- Telleri auzian, Lekarozko elizaren eskuinetik hartu eta 1,5 kmtara.
- Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua.
- 100 lagunendako lekua jarrita.



AZKAIN

Herriko Besten Komiteak biltzar nagusia egin zuen urtarrilaren 11n

Bertzalde, larunbateko merkatua emeki-emeki hasi da

Ihintza, Angela eta Eneko

Urtarrilaren 11 an, ortzilarrekin, Herriko Besten Komiteko elkarteak bulegoa bozkatu du. Huna zein diren bulego ki-deak:

Lehendakaria Jérôme Laduche, lehendakari ordea Sébastien Urdampilleta, diruzaina Stéphane Scarfato, diruzain ordea Gabi Ibarburu, idazkaria Isabelle Subelzu, idazkari ordea Karine Higos.

Elkarteak pentsatzen du animazio egun bat antolatzea apirilaren bukaeran, joan den urteko besten bilana baiko-rra izan da eta heldu den urteko besten egitaraua aipatua izan da bainan zehaztasunik ez dute eman oraino lan bilkura orain hasiko baitituzte. Jendea interesatua bada lan hortan parte hartzeko, gogotik onhartua izanen da. Ondoko bilkura urtarrilaren 26 an egingen da, larunbarekin goizeko 10 etan, Jauregian.

Merkatua emeki hasi da

Azkaingo merkatua Urtarrilaren 10ean hasi zen, larunbarekin. Goizeko zortzietatik arratsaldeko oren batetara,



Larunbatetako lehen merkatu egunean saltzaile guti etorri zen.

larunbat goiz guziz iraganen da. Hastapena zelako behar bada, hiru saltzaile baizik ez ziren: arrain saltzailea, arno saltzailea eta okina.

Ondoko larunbatetan baratzekari saltzailea ere etorriko dela dirudi. Hala nola, denbora goxo batekin, Azkaingarrak plazarat ateratu ziren egun hartan merkatuaren lehen eguna selauru hustearekin batera kokatzen baitzen.

Mus xapelketa lehen itzulian

Union basque xapelketako lehen itzulia

Plazan ostatuan egingen da otsailaren 15 an. Izen emateak 15a arte egingen dira zenbaki hundertaz: 05 59 54 00 80. Bigarren itzulia otsailaren 23an egingen da.

Marc Berasategik pilotako liga irabazi du

Marc Berasategi eta Alain Urrutygarayek pilotako amatur liga irabazi dute Arrangoitzen Urtarrilaren 13an, Etcheverry-Kurutcharry bikote gaztearen kontra. Gan den urtean finalean galdu zuten, aurtan

aldiz ez dute okasionea pasatzerat utzi ainitzentzat hautuzkoak ez baziren ere pilotari gazte horien aintzinean, beraien kontra 40 eta 20 galdu baitzuten berrikitan.

Mutxikoak Ihauterietarat gibelatuak dira

Hilabeteko bigarren igandean egiten dira mutxikoak, mezaren ondotik. Ondoko hilabetan ez dira otsailaren 10ean egingen baizik eta Ihauterietate egunean, otsailaren 16an larunbarekin arratseko 7etan.



PERTSONAIA

Marc BERASATEGI

«Berezkoen mailan onartua izan nahi nuke»

Ez zineten hautuzkoak finalarentzat, zuretzat zerri esker irabazi duzue?

Batzuentzat hautuzkoak ginen joan den urtean finaleraino arribatu baiginen, bertzentzat ez Etcheverry eta Currutcharry bizi-ki ongi aritu baitziren aurtan eta gure kontra ere 40 eta 20 irabazi baitzuten duela gutti. Hala ere gu baino gazteagoak dira eta esperientzia faltagatik galdu dutela pentsatzen dut.

Zertan garaipen honen zure geroa alda dezake?

Nik berezkoen mailan onhartua izan nahi nuke. Hortarako komisio berezi baten baimena lortu behar dut eta holako emaitza bategi laguntzen ahal nau. Bainan badira orai Frantziako eta munduko xapelketak, eta hor nere maila konfirmatzeko okasionea izanen dut.

Besta egin duzu igandegauan?

Bai.

Zer tenoretan sartu zira etxera?

Erran dezagun astelehen goizean goizik sartu naizela.



SOULE

Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN





EZKONTZAK

Carlos Bassa Altemir eta **Catherine Etxamendi Jauntsaras**, Kataluniakoak Iruritan, abenduaren 22an.

Mikel Goñi Martikorena eta **Maria del Mar Romero Rodriguez**, Oronoz-Mugairikoa eta Alcorcón (Madril), abenduaren 8an.

Pedro Maria Canflanca Ezkurra eta **Miren Itziar Altzelai Alberdi**, Leitzakoak, urtarrilaren 8an.

Jose Javier Nosellas Zabalegi eta **Eva Aldabe Portu**, Belauntza (Gipuzkoa) eta Oieregikoa, urtarrilaren 12an.



JAIOTZAK

Oihane Sagardia Altuarte, Almandozkoa, abenduaren 27an.

Maitane Iparrea Rekarte, Iruritakoa, urtarrilaren 3an.

Diego Biurrarena Ortiz, Leitzakoa, azaroaren 30ean.

Luken Casares Arretxe, Leitzakoa, abenduaren 22an.

Eunate Ibarrola Santesteban, Zubietakoa, abenduaren 28an.

Iban Azkarate Sebastian, Berakoa, abenduaren 24an.

Alba Sanz Criado, Berakoa, abenduaren 21ean.

Aroa Martin Alduntzin, Berakoa, abenduaren 27an.

Maddi Ordoki Agirre, Berakoa, abenduaren 30ean.

Zuhatz Larrondo Senper, Berakoa, abenduaren 29an.

Joanes Alfaro bergara, Zugarramurdi, azaroaren 1ean.

Zuriñe Erkizia Konde, Lesakakoa, urtarrilaren 14an.

HERIOTZAK

Agapito Zubiri Uriz, Elizondon, abenduaren 28an, 85 urte.

Tomas Iturburua Maripizena, Erratzukoa, urtarrilaren 3an, 64 urte.

Jose Arnal Diaz, Elizondokoa, urtarrilaren 4ean, 72 urte.

Antonio Aleman Etxenike, Azpilkuetakoa, urtarrilaren 10ean, 87 urte.

Josefa Huarte Bidondo, Elizondon, urtarrilaren 10ean, 96 urte.

Felipe Zuloaga Larrañaga, Goizuetakoa, urtarrilaren 10ean, 74 urte.

Katalina Makazaga Sukuntza, Goizuetakoa, urtarrilaren 14an, 80 urte.

Maria Francisca Murgindo Ibaguren, Berakoa, urtarrilaren 10ean, 96 urte.

Vicente Migeltorena Sagardia, Doneztebekoa, urtarrilaren 9an, 76 urte.

Maite Errandonea Zubiet, Berakoa, abenduaren 11n, 52 urte.

Miguel Pikabea Goia, Berakoa, abenduaren 20an, 80 urte.

Maria Salaberria Etxeberria, Igantzikoa, abenduaren 29an, 84 urte.

Prudencio Leiza Zugarramurdi, Arantzakoa, urtarrilaren 1ean, 73 urte.

Cecilia Iribarren Iantzi, Nartartekoa, urtarrilaren 12an, 79 urte.

Laureana Juanena Sagardia, Beintza-Labaiengoa, urtarrilaren 10ean, 89 urte.

Jose Joaquin Otermin Caballero, Leitzakoa, urtarrilaren 11n.

Kontxita Artzadun, Aresokoa, urtarrilaren 5ean, 83 urte.

Esther Goikoetxea Gogorza, Aresokoa, urtarrilaren 12an, 61 urte.

GOZOTEGIA OKINDEGIA
SARL ETXEHONA
AZKAIN
Tél. 59 34 01 67

ZUBIRIA MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274

Martina AGERRE

«Beti irrifarrea zenuen lagunmin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin».

ZIGAKO FAMILIA.
Mila esker une latz hauetan gurekin egon zareten guziei.

TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52
ELIZONDO

Baztan, Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdi

24 orduko zerbitzua tanatorioan eta etxean prezio guzietan

☎ 900 704704
☎ 948 581959

DATUAK...

- Hainbat pilotari biltzen dituen Eskutik sindikatuko zuzendaritza batzordeko kide da Inaxio Errandonea Alkaigako pilotaria.
- Eskutik-ek eskuz binakako txapelketa hasi bezperan ateratako prentsa oharrak zer erranik sortu du pilotazaleen artean: «Gure asmoa enpresekin serio solastea da, bertzerik gabe» dio Inaxiok.
- Pilotarien sindikatua momentu indartsuan dagoela uste du: «Alferkeriagatik edo, bat edo bertze ez da sartu, baina pilotari gehienen ordezkaria da Eskutik».



AITOR AROTZENA

Inaxio ERRANDONEA *Eskutik pilotarien sindikatukoa*

«Serio solastea eta komenio bat negoziatzea bertzerik ez dugu nahi»

Aitor AROTZENA

Joan den urteko udaberrian sortu zuten Eskutik pilotarien sindikatua. Aurkezpen ekitaldi ederrean, Jorge Oteizak egindako logotipoa eta hitzak ikusgai eta entzungai izan ziren. Abudo urtea beteko du lanean sindikatuak, baina eskuz binakako txapelketa hasi aitzin Eskutik-ek argitara emandako prentsa oharrak eman du ezagutzera pilotarien ezinegona. Inaxio Errandonea, Eskutik sindikatuko zuzendaritzako kidearen erranetan, «pilotarion mundua nahiko berezia izan da beti. Izan dira pilotarien elkarte sortzeko asmoak, baina sekulan ez da indar nahiko egin. Orain, ez dakit zergatik, badiirudi goi mailako pilotari batzuk bildu dira, edo bildu gara, eta denen artean lortu dugu elkarte egitea». Pilota enpresen aitzinean planteamendu bateratuak azaldu nahi dituzte pilotariek, bakoitza bere aldetik joan beharrean. «Gauregunean, edozein kiroletan elkartasun bat izaten

Orain arte enpresek ez zuten kompetentziarik eta min egin die pilotarien elkarte sortzeak. Baina lehenago edo geroxeago onartu beharko dute eta gauza lasaitu egingen da.

da, eskubide batzuk izaten dira... Asegarce sortu zenean ere, pilota kirol moderno bihurtu nahi zutela zioten, eta horixe nahi dugu guk ere» dio Errandoneak. Baina lehendabiziko pausuak bertzerik ez dira, eta horiek dira zailenak Alkaigakoaren ustez.

«BARRIOLA TXAPELKETATIK KANPO UZTEAK LEHERTU DU EGOERA»

Abel Barriola, lau terdiko txapelketa irabazi ondotik, binakakotik kanpo uzteak lehertu du, nolabait, egoera. «Eskutik-eko aholkulari batekin joan zen Abel eta ia-ia pareta batekin topatu ziren. Enpresak ez zuen aholku-

laria eramatea onartu eta penagarria izan da txapelketatik kanpo nola utzi duten». Dena den, pilotariek binakako txapelketan zer erranik ez dutela erabaki zuten bilera batean. «Hori beti horrela izan da, momentu horretan enpresari gehien interesatzen zaizkion pilotariak paratzen ditu». Banakako eta lau terdiko txapelketak, ordea, nolabait arautu behar direla uste dute pilotariek. Eskutik-en prentsa oharrak hautsak harrotu ditu, eta hori zen lehen helburua. Baina pilotarien eskaria ximplea da: «Mahai baten inguruan solastentzea serio eta komenio bat negoziatzea, edozein enpresatan bezala». Enpresek, aldiz, Eskutik-en buru egin duten pilotari batzuk baztertzen joan dira. «Alde batetik normala da, orain arte bakarrik egon dira, ez zuten kompetentziarik eta orain bapatean horrelako elkarte bat ateratzeak min egin die. Baina lehenago ez bada geroxeago onartu beharko dute eta gauza normalizatu eta lasaitu egingen da».

SOKATIRA

Euskal Herriko txapelketan ere ongi hasi da Beti Gazte taldea

Lesakan egin zen 600 kiloko lehen saioa urtarrilaren 12an

Nafarroakoan beza-la, Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketaren lehen saioa urtarrilaren 12an jokatu zen Lesakan. 600 kiloko kategorian, Beti Gazte ez zuen arazorik izan bere multzoko tiraldi guztiak irabazteko. Biharamonean, 640 kiloko saioa izan zuten Astigarragan. Lesakakoek, lesioen ondorioz, bezperako zortzikote berarekin tiratu behar izan zuten eta bigarren izan ziren, Abadiñoren gibeletik. Larunbat honetan 560 kiloko lehen saioa jokatu izanen dute Oiarzunen.

Urtarrilaren 26 eta 27an, 600 eta 640ko bigarren saioak jokatu dituzte Balmasedan (Bizkaia) eta Villabuenan (Araba). Otsailaren



AITOR AROTZENA

Euskal Herrikoaren ondotik, Munduko txapelketa jokatu da Irlandan.

2an, 560 kiloko bigarren saioa izanen dute Baigorri. Gero, finalen txanda ailegatuko da. Otsailaren 9an 600 kiloko Abadiñon; otsailaren 10ean 680 kiloko

Mutrikun; otsailaren 16an 560 kiloko Arrigorriagan eta 17an 640 kiloko Usurbilen.

Euskal Herrikoa akautu bezain laster, Munduko goma gaine-

ko sokatira txapelketa jokatu da, otsailaren 21etik 24ra Irlandako Cork herrian. Talde euskaldunek klub arteko txapelketan bakarrik hartuko dute parte.

FLASH

Juan Carlos Garro

Beratarra bigarren izan zen urtarrilaren 13an Arabako Durana herrian jokaturako Espainiako ziklo-kros txapelketan. Meritu handiko zilarrezko domina lortu zuen Garrok, izan ere David Seco bizkaitarra bakar bakarrik izan zuen aitzinetik. Garro gustora agertu da ziklo-krosean egindako lanarekin, baina Munduko txapelketara ez joatea erabaki du eta orain berriz mendi bizikletan hasiko da.

Nafarroako kros txapelketa

Urtarrilaren 13an jokatu zen Nafarroako klub arteko kros txapelketa eta Hiru-Herri elkarteak izan zen jauna eta jabe. Senior mailan, klub horretako Gabriel Garin eta Rafa Maritxalar lesakarra eskutik hartuta sartu ziren helmugan. Lau garren, talde bereko Antonio Bru beratarra sartu zen. Juniorretan ere elkarte bera izan zen garaile, Iñaki Mihura arraioztarraren garai-penari esker.

PILOTA

Eskuz binakakoari indartsu ekin diote Olaizolatarrek

22-6 irabazi zuen Aimarrek, 22-11 Asierrek

Ez zuten nolanahiko txapelketa hasiera egin Goizuetako Olaizola anaiek eskuz binakakoan. Aimarrek Errastirekin, 22 eta 6 irabazi zuten Tirapu eta Zezarrari urtarrilaren 13an Barakaldon. Asierrek, iaz lortutako txapelaren bila, Patxi Ruiz du lagun

aurtengoan, eta 22-11 irabazi zieten egun berean Eibarren Unanue eta Pascual-i.

Eskualdeko bertze ordezkaria txapelketan, Mikel Goñi oronoztarra, lesionatua dago eta ez du hirugarren jardunaldira arte parte hartuko. Bere ordezkari, Agirre ari-

ko da Goñi III. arekin. As-teburu honetan Olaizola I eta Patxi Ruizen kontra aritzekoak ziren. Aimar Olaizolak eta Errastirik, berriz. Esain eta Belokiren kontra aritzekoak ziren.

Finalerdiak otsailaren 17 eta 24an jokatu dira (hirugarren par-



GARA

Ez zuen kexu egoteko arrazoi handirik Aimar Olaizolak, Errastirekin batera txapelketako lehen partida aisa irabazi baitzuen.

tidua beharrezkoa baitz, martxoaren 3an) eta

final nagusia martxoaren 10ean izanen da.

AGENDA egunez egun

INAUTERIAK

ARANTZA

Urtarrilaren 31tik otsailaren 2ra musika, mozerro desfileak etxek etxeko puska biltzea, dantzaldiak, bertsolariak, kirol saioak, umorea...

BAZTAN

Urtarrilak 24, 25, 26 Oronozen; urtarrilaren 25, 26 Aniz eta Berroetan; otsailaren 1, 2, 3 Zigan eta otsailaren 1 eta 2an Azpilkuetan

LEITZA

Urtarrilaren 26tik 29ra eskea, pilota partiduak, desfilea eta abar.

SUNBILLA

Urtarrilaren 25etik 27ra Igandean ohi bezala karrozen desfilea izanen da.

ITUREN

Urtarrilaren 26tik 29ra joaldunak asteartean Zubietara joanen dira

ZUBIETA

Urtarrilaren 26tik 29ra joaldunak astelehenean Ituren bisitatuko dute.

IGANTZI

Otsailaren 1 eta 2an

ORAKUNDE

BAZTAN

Ziga, otsailaren 3an Amaiur otsailak 5 Lekaroz, Erratzu otsailak 6 Arizkun, Elbete, Elizondo, Gartzaín, Irurita, Almandoz, Oronoz eta Arraioz otsailak 7. Berroeta eta Aniz otsailaren 9an.

BERTSO AFARIA

BERA

Otsailaren 2an bertso afaria Zubiondo Jatetxe-sagardotegoa arratseko 9etan. Bertsolariak Irazu eta Peñagarikano, gai jartzailea Manolo Arozena. Txartelak jatetxean bertan 22,84 €.

TELEBISTAKO TXOKOA



SUNBILLA, ITUREN, IGANTZI ETA ARANTZA Ailegatu dira 2002ko lehen Inauteak eskualdera

SUNBILLA

Inauteak, inautik, ihotik, inaute-riak ailegatu dira. Ttipi-ttapa telebista Sunbillako karrozen desfilean izanen da irudiak zuengana-zeko. 18 urte beteko dira desfilea hasi zenetik. Bertaratzeko astirik ez duzuenek, ez galdu telebistan emanen diren saio bereziak.

ITUREN ETA ZUBIETA

Astelehenean urtarrilaren 28an Zubietako joaldunekin, Aurtiztik pasatuta, Iturenera joanen da telebista, eta bihamunean, kontrako bidea egingen du iturendarren bisita erakusteko asmoz. Mozerroen saltsa zuen etxean izanen da egun horietan ere.

nen da egun horietan ere.

ARANTZA

Eta urtarrilaren 31n... heldutuk, heldutuk! inautik, inautik! Arantzaren besta giroa nabarmenduko da eta han egonen da Ttipi-Ttapa telebistan horren testigantza biltzeko.

IGANTZI

Indarrak galdu gabe Igantzaren izan gara otsailaren 1 eta 2an. Urteroko taldeek zer prestatuko ote dute larunbat arratserako? Irrikitan bazaude etzazula galdu telebistaren arrastoa. Prestatu mozerroak eta karriketara ater! Bester girorik ez da faltako herrietan!

DISKAK



«Altza Porru»

Txirri, Mirri eta Txiribiton

ELKARLANEAN

«Altza Porru» diskoaren ardatza, azken urtean Barre Busa programan famatu diren abestiek osatzen dute. "Barre Busen" izeneko kantan Euskal Herriko lurraldeak agurtzen dituzte eta bertako haurrek erantzuten dute, tokian tokiko euskalkiekin. Haurren eguneroko biziaren kontuak ere aipatzen dituzte abestietan. "Zorionak" urtebetetze egunetan abesteko prestatua dute bereziki. Disko honek doinu guztiak eta hitz gehienak Jose Ignazio Ansorenak prestatu ditu. Aitzpea Goenaga eta Kike Amonariz izan dituzte laguntzaile bina abestietan. Eta Joserra Senperenak prestatutako moldaketek maila altuko izaera ematen diote diskari. Eguneuskal haurren artean hain gustuko den futbolari ere tar-tea egin diote eta Athletic, Real, Alavés eta Osasunari abestia eskaini diote.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Urtarrilaren 4tik 11rako prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea (19 kilo): 41,47 €

Zerri gizena (95-100): 0,95 €

Zerramak: 0,42/0,45 € kilo, bizirik.

BEHIKIA



Aretze gizenak: Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,52

1.koa 3,40

2.koa 3,28

Urruxak: Pta/kg. Kanal

Extra 3,58

1.koa 3,46

2.koa 3,34

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Mestizoak: urruxak

234,29 € eta idixkoak

222,37

€. Nabarrak: urruxak 216,36 € eta idixkoak 174,29 €.

Zaldikoak: Pta/k

Sortuberriak: 500/510

Zaldi-behorrak: 320/330

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,11/5,41

8-10 kilokoak: 4,66/4,96

JAKIN BEHARREKOAK



Euroari buruzko galdemoduak

EUROA NOLA ADIERAZTEN DA IDAZTERAKOAN?

Euro-zonaldeko herrialde guzietan monetaren izena «euro» da. Desberdintasunak zentimoak izendatzeko orduan azaltzen dira. Herrialde guzietan «cent» izena erabiltzea gomendatu zaie. Dena den Espainian «céntimo» onartuko da ere. Laburduren kasuan, euroarena: «EUR» da hizkuntza guzietan. Cent-entzat ez dago laburdura ofizialik, baina «c» edo «ct» jartzea gomendatzen da. Euro hitzaren singularra herrialde guzietan berdina da grekeran ezik. Zentimoaren kasuan grekeraz eta

2002ko ekainaren 30a arte
pezetak eta liberak,
euroengatik aldatu ahal
izanen ditugu, banketxe eta
aurrezki kutxetan

fineraz aldatzen da.

PEZETAK ETA LIBERAK, EUROETARA ALDATZEKO EPEAK

Urtarrilaren 1etik euroak eskutan ditugu, orain ekainaren 30a arteko epea dago pezetak eta libera guztiak trukatzeko. Txanpon eta billeteak Espainia eta Frantziako bankuetan, aurrezki kutxa eta bankuetan edo mailegu kooperatibetan aldatu daitezke. Inoiz

ezingo dira euroak, pezeta edo liberengatik trukatu. Aldatzea dohainekoa da eta banketxe ezingo dute inolako komisiorik kobratu.

2002ko ekainaren 31tik aitzin pezetak eta liberak, Espainia eta Frantziako Banku Zentratetan soilik aldatu ahal izanen ditugu. Gogoratu erosketa guztiak matxoraren 1ean euroetan izanen direla.

Accion Euro
Nafarroako Kutxa



LIBURUAK



AUSKALO!

Xabier Olaso

Pamiela

Xabier Olaso otxandioarrak, urteak eman ditu igarkizunak eta aho koropiloak biltzen. Azkenik Auskalo! izeneko liburuan publikatu ditu, Pamiela argitaletxearen eskutik. Haurrentzako idazten duen lehen liburua da Olosorena, halere, helduek ere irakur dezaten gustatuko litzaioke «igarkizunek guztion adimena zorrozten dutelako, guztiona, heldu zein haurrena». Denetara 375 igarkizun eta aho koropilo dira eta 125 orrialdetan banatzen dira. Aza-

lean eta barruko orrialdeetan agertzen diren ilustrazioak Agurtzane Vilate margolariak egin ditu. Lehendik ere zenbait liburutan marrazkiak publikatu izan ditu margolari gasteiztarak. «Auskalo!» liburu oso dibertigarria izan daiteke gurasoak semeekin jolasean aritzeko. Aurrerapen moduan: «Kulunka egiten duen aulkia, lau hanka ditu, eta hanken azpian, eskiak.» Zer ote da? Pamielaren «tamaina tikia» saillean erantzuna.

AGENDA

egunez egun

BATZARRAK

LEITZA

Otsailaren 2an Umore Onaren urteko bazkaria, arratsaldeko 6,30etan lehendabiziko deialdia.

AZKAIN

Urtarrilaren 26an Herriko Besten Komitea Jauregian goizeko 10etan

ERAKUSKETAK

BERA

Urtarrilaren 11tik otsailaren 2ra 2004. urtean Iratxeko monastegian irekiko den Julio Caro Baroja museo etnologikoaren aurkezpena Berako Kultur Etxean. Nafarroaren iragana ezagutzeko modu polita.

MENDI ATERALDIA

BAZTAN

Urtarrilaren 27an mendii ateraldia Mendaurrea

MUS TXAPELKETA

SARA

Urtarrilaren 26an Izarra errugbi elkartearen 6. mus txapelketa. Arratsaldeko 2etatik goiti.

Otsailaren 8an Herriko Etxeko edantegian arratseko 9etan. Izena eman urtarrilaren 31 baino lehen, ostatuan edo 0559542519

GUARDIAKO FARMAZIAK

Urtarrilaren 21etik 27ra

Bera (A. Lasaga, Bidasoa 43), Sunbilla, Arizkun eta Goizueta.

Urtarrilaren 28tik otsailaren 3ra

Bera (M.J. Sanz, Bidasoa 14), Doneztebe (Etxarte, Kale Nagusia), Goizueta eta Elizondo (Iturralde).

Otsailaren 4tik 10era

Igantzi, Ituren, Irurita, Leitza eta Goizueta

00-34 **948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 6,30 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 6,30 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Pisu salgai Ezte-gara Pasealekuan, hirugarren pisua, eguzkitsua, 125m². ☎ 948 630 251 • 679 526 401

BERA. Pisu salgai Kanttonberri karrikan. ☎ 948 630 413

BERA. Pisu salgai Legia karrika, 53 - 3. pisuan ☎ 696 753 366.

BERA. Pisu salgai Ezte-gara Pasealekuan. Eguzkitsua. 125m². ☎ 948 630 251 • 679 526 401

ELIZONDO. Pisu salgai Braulio Iriarte karrikan. Mobleztatua eta berriztatua. ☎ 667 418 661

GOIZUETA. Pisu salgai, berritua, trastero eta kalefakzioarekin. ☎ 948 514 036

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ADOS

DONEZTEBE
Pisu berriak salgai.
Bigarren eskuko bi etxe.

BERA

Pisu batzuk salgai,
14 milioi Pta.tik hasita.
Bajera 175 m²tik gorakoa
Altzate karrikan

☎ 607 978 656



MERENDEROA
salgai Beran,
Intzola inguruan
jubilazioarengatik.

☎ 948 631228
(arratsaldeko
5etatik aitzin)

LESAKA. Baserria salgai
Nabaz auzoan, 26.000 m²ko
lur eremuarekin. Hagitz inter-
resgarria. ☎ 943 629 035

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

BERA. Pisu mobleztatua
errentan eman nahi da. ☎
948 630 270 (arratseko 9 eta-
tik aitzin)

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BORTZIRIAK. Pisuaren-
tan hartuko nuke. Ez oso
garestia. ☎ 617 691 370

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LEGASA. 450m²ko nabea
alokatzen da. ☎ 629 348 491

LESAKA. Inguru industria-
lean dagoen 100m²ko ba-



jera errentan eman nahi da.
Bulegoa jartzeko egokia. Sar-
tzeke moduan. Prezio inte-
resgarria. ☎ 948 634114

LESAKA. Albistur auzoan
garajea errentan ematen
da. ☎ 600 903 196

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

LESAKA. Nabaz auzoan
5.000 m²ko lur eremua sal-
gai. Eraikitzen ahal da. ☎ 948
637 903

KORELLA. 1.420m²ko lur
eremua etxolarekin, eta ka-
rabana salgai. ☎ 948630582

MANU

AKUTXILATZEAK
BARNIZATZEAK

Aurrekontuak loturarik gabe
☎ 948 630 258
☎ 656 411 075

ZERBITZUAK

205 Zurginak

ARANTZA
ZYRGINDEGIÀ

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako

zurgin lanak

Osia auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

Zure seme-alabak harreta
falta badu edo hiperakti-
boa bada, deitu ☎ 948 581
282 telefonora. Laguntza

ROSA BELZUNEGI

PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordua

☎ 948 580 975

Jaime Urrutia 42-2.D
ELIZONDO

GURIA



inmobiliaria
agentzia

BASERRIA SALGAI

28.000 m²ko lur-eremuarekin
LESAKA. Nabaz Auzoa.

Hagitz interesgarria.

Lurra zatitu eta hiru etxebizitza
egiteko aukera ematen du.
Informa zaitez.

GURIA inmobiliaria Agentzia

Iparalde, 1 - Pral. D Tel. 943-63.22.14
20302 IRUN-GIPUZKOA

emanen dizugu. A.D.I. el-kartea.

LANA 301 Eskariak

Emakume batek edozein **lanegingo** luke. Internamoduan ere. ☎ 649 770304

Emakume batek haurrak edo adinekoak zaintzen, etxeko lanak egiten, edo antzeko lanetan aritu nahi du. ☎ 626 852 937

Neska batek jornada erdirako lana bilatzen du. (goizeko 8etatik 12etara). ☎ 626 852 937

LANA 302 Eskaintzak

BERA. Sukaldaria behar da egun erdiz aritzeko. (9:30etatik 4:30etara). ☎ 948 631 584

25-45 urte bitarteko ema-

kumea bilatzen da Baztan-Bidasoaldean inkestak egiteko. ☎ 948 580 093 (eguerdiko 1:30etatik 2:30etara eta gaueko 9etatik 10etara)

IRAKASKUNTZA 401 Eskaintzak

Bateria klaseak ematen dira goiz eta arratsalde. ☎ 617 909 614

MOTORRA 501 Salerosketak

Derbi GPR sport 80 salgai. ITVa pasatua. Prezio interesgarria. ☎ 948 580 179 (gauez)

Kamioiarendako zereal plataforma baskulantea salgai. 11,2 metro, 3 ardatz. Burnizko txasia, aluminiozko kaja. ☎ 649 801 997

Ford Escort 1.6 D salgai. BI-AV matrikuladuna.

250.000 pezeta. ☎ 948 630 235

Alfa Romeo 75, TUIW Spark 2000 148 cv salgai. 300.000 pezeta. ☎ 609 068 520

Renault 9 diesela NA-U. Hagitz egoera onean dago. ☎ 609 486 052

Xantia Exclusive modelo salgai. NA-AW. TD 2.1, 115 cv. Hagitz egoera onean. Ekipamendu osoa. 10.000 € (1.650.000 pta) Negoziagarrria. ☎ 948 631 373

309 GTI, 16 V salgai. Egoera onean. ☎ 669 010 656

MOTORRA 502 Tailerrak

GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua



**BOAN
TAILERRA**
CITROEN Banatzailea

**AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA**
☎ 948 63 06 23 • BERA

BAZTAN MoToR

☎ 948 452 119 • IRURITA

Bigarren eskuko kotxe garantizatuak:
Renault 4, Suzuki SJ410,
Xantia 2.1 TD, Fiesta 1.4

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Frontera Sport, Xsara 1900 D,
306 TD, Defender, Feroza 1600,
Mitsubishi 2500, Terrano II 125 cv
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

ANIMALIAK 602 Saldu/Erosi

Monturako behor hezia, espainiar arrazakoa, salgai. ☎ 948 452 297

39 ardi bere deretxoekin salgai. ☎ 948 627 569

20 ardi ernari eta **10 ardi** en deretxoekin salgai. ☎ 948 634 180.

27 ardi euren deretxoekin salgai. 627 019 826

Cocker arrazako zakurkumeak salgai. ☎ 677 594 892 • 948 637 519

Mendi behiak, migak eta astoa salgai. ☎ 655 706 073

DENETARIK 701 Galdu/Aurkituak

Donezteben errege kabalagata egunean **urrezko eraztuna (anilloa) galdu zen eliz atarian**. Aurkitu duenari sari ona emanen zaio. ☎ 617 461 649 • 948 451 846

DENETARIK 702 Salerosketak

Ohatze artikulatua, koltxarekin salgai. Ia berria. 1,50 metro. ☎ 948 450 640 (2etatik 3etara)

Gasnak egiteko tresneria salgai. (3 klasetako kajak, tankea, 2 kamara, prentsa, kuba, motobomba, moldeak eta abar.) ☎ 948 450 612

DENETARIK



BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN

Sukaldean erabilitako olio
bilketa egunak

2002ko otsailaren 7an

Bera9etatik 12etara
Etxalar13etatik 14etara

☎ 948 635 254 - Etxalar

703 Bertzelakoak

MARIA. Kubako tarot irakurlea. Magia xuria, laguntza izpirituala. ordua eskatu. ☎ 906 298 668

Xorroxin Irratian igandeetan arratsaldeko 7etatik 8'15etara **JOTAROCK musika saioa**. Animatu entzutera eta parte hartzera. ☎ 948 638 288 jotarock669@hotmail.com

HARREMANAK 801 Agurrak

Errege bezpera batean, duela pare bat urte apostua egin genuen Lesaka eta Leitzako bi koadrilek. Lesakan antolatuta eta lesakarrok galdu egin genuen. Bazkaria ordaindu eta Leitzaan egin beharreko errebantxaren zain gelditu ginen, orain arte. Leitzarrek potroak dituztela diote, eta hainbat kirolarik hori erakutsi dute. Eta zuen potroak non daude? Esperoan gaudezi. Lesakar bat.



☎ 948 63 11 88



manelsa

elektrizitate industrial

**Instalazio eta muntaia
elektrikoak
Mantenimendua
Automatismoak
Iluminazioa**

Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)



JULENE ORTEGUREN beratarak 6 urte bete ditu urtarilaren 17an. Zorionak atta, ama eta familia osoaren partetik. Muxu bat.



LIERNI OLARTEA errenteria 12an. Zorionak familia osoaren eta bereziki Mirentxuren partetik.



IORITZ ARBURUA beratarak 2 urte bete ditu urtarilaren 24an. Aunitz urtez eta muxuak atta eta amaren partetik.



IORITZ ARBURUA beratarak 2 urte bete ditu urtarilaren 24an. Zorionak eta muxu bat atautxi eta amatxiren partetik.



BEÑAT ARREGI beratarak 7 urte bete ditu urtarilaren 17an. Zorionak.



ANDER ARREGI beratarak 4 urte bete ditu urtarilaren 17an. Zorionak.



MAITE ARREGI beratarak 4 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak.



MARTIN CIRIZA beratarak 3 urte bete ditu. Zorionak etxekoaren partetik.



IBAI IRIBARREN beratarak 23an 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoaren partetik.



UXUE ZELAIETA beratarak 4 urte bete ditu urtarilaren 17an. Zorionak familiaren partetik eta bereziki Jonen partetik.



IRATI ARBELAITZ beratarak 18an 6 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik. Muxu bat!



TERE ETA ANDONIK urtarilaren 24ean urteak bete dituzte. Zorionak familiaren partetik.



EDURNE ZABALETA leitzarrak 8 urte bete ditu urtarilaren 13an. Zorionak eta muxu handi bat Maxuxen partetik.



TERE BENGOTEXEA leitzarrak ez dakigu zenbat urte bete dituen otsailaren 1ean. Zorionak Mikel, Unai eta Jose-txoren partetik.



AIZEA PETRIRENAK 4 urte bete ditu urtarilaren 29an. Zorionak Gexanen partetik.



MIKEL ETA JULEN doneztebarrak urtarilaren 11n 5 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta familiaren partetik.



UNAI TELLETXEA beratarak 6 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta familiaren partetik.



YAGO CANTERO beratarak 26an 2 urte bete dituzte. Zorionak familiaren partetik.



JESUS IRAOLA beratarak 28an urteak bete ditu. Zorionak anaia eta iloben partetik.



TXOMIN SAPPUPU beratarak 15 urte bete dituzte. Zorionak atautxi, amatxi eta gurasoen partetik.



MIKEL ALDIZABAL beratarak 28an 7 urte bete dituzte. Zorionak Iñigo, Naiara, guraso eta amonaren partetik.



XABIER BIDAURRE beratarak 25an 2 urte bete dituzte. Zorionak: Maria, Imanol eta Eudene.



ANTTON APEZTEGUI beratarak 25ean. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



SENPEREKO ERREIRAKO beratarak 78 urte bete dituzte. Zorionak eta mila muxu familiaren partetik.



ARANTZAKO NORBERTO beratarak 6 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta familiaren partetik.



LEIRE MATXIRENA beratarak 6 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu bat familia guztiaren partetik.



IRATXE OTXANDORENA beratarak 18an 2 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu aunitz guraso eta elgorriko familiaren partetik.

Navarropro
Baserriak eta Propietateak

TUBOAK

ZIRI GIDARIAK

GAZTAIN PIKETAK

HESIETAKO SAREAK

LORATEGI ETA ZERRAKURA MATERIALAK

Eslava Karrika, 15
☎ 607 842 709 ☎ 610 836 534
31320 MILAGRO (Nafarroa)

BERAko UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA

SUSPELTITIKI ETA DORNAKU BIDEAK MOLDATZEKO OBRAK

- Kontratuaren xedea:** Suspelitiki eta Dornaku bideak moldatzeko obrak.
- Esleipen modua:** Prozedura irekia, lehiaketaren bidez.
- Kontrata aurrekontua:** 33.917.763 pta./ 203.849,86 euro (B.E.Z. barne)
- Kalifikazioa:** G taldea, 4. azpitaldea, d) maila.
- Proposamenak aurkezteak:** Iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko 27. egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. Egun naturala. Egun hau larunbata suertatzen bada, ondoko asteleheneari irekiko dira. Ordua: 14:30.
- Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratibo plegua eta gainerako baldintzak interesatuen eskura leku hauetan izanen dira:**
 - Udal bulegoetan
 - Rubio paperdenda: Fco. Bergamin, 10 (Iruñea)
 - Ingosoa: Iturilandeta Karrika (Bera)

Bera, 2002.01.04 ALKATEA, J.J. Goya Echeverria

URDAZUBIKo UDALA
AYUNTAMIENTO DE URDAX

Urdazubiko auzoetako elektraztapen obren Proiektuaren idazketa eta Obraren Zuzendaritza

- Kontratuaren xedea:** Urdazubiko auzoetako elektraztapen obren Proiektuaren idazketa eta Obra Zuzendaritza.
- Esleipen modua:** Prozedura irekia, lehiaketaren bidez.
- Kontrata aurrekontua:** 39.666 euro (B.E.Z. barne)
- Proposamenak aurkezteak:** Iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko 27. egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. larunegun. Egun hau larunbata suertatzen bada, hurrengo asteleheneari irekiko dira. Ordua: 14:30.
- Baldintza tekniko eta klausula administratibo plegua interesatuen eskura dago Udal Idazkaritzan.**

Urdazubiko, 2002.01.17
ALKATEA, Andrés Diharassarry Orgambide





OTSAILEKO MATRIKULAZIOA

- Maila guztiak eta EGA
- Ordutegiak aukeran

IZENA EMATEKO:

- Bortzirietako Euskaltegia
948 637 796
- Malerreko Euskaltegia
948 451 555
- Leitzaldeko Euskaltegia
948 610 776

Deitu otsailaren 8a
baino lehen!



Iñauterietako zure denda

- HELDUENDAKO MOZORRO ALOKAIRUA
- Heldu eta haurrendako neurrira egindako mozorroak
- Osagarriak: pelukak, txanoak...
- Iñauterietako gisa guzietako oihalak



Colon Ibilbidea, 1 • **IRUN** • Tfnoa: 943 622 210



Sarrera BERAtik da

Alkaiagako industrialdean

Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

Sukaldeak

Egongelak

Logelak

Bainugelak



ESKAITZA

- SOMIER ARTIKULATUA
- LATEX KOLTZOIA (90x190)

OSORIK

510,26 €

k ikusteko